

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2021-07-30 OSTIRALA / 784. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TORIKOM



# Uda

SAKANAN



## "Guk gozatzin duguna bisitariei eskaini nahi diegu"

### PAQUI URBITARTE CABRERA

SAKANAKO GARAPEN AGENTZIAREN TURISMO TEKNIKARIA Sakanan turismo iraunkor bat bultzatu nahi da, bisitarien eta bertan bizi diren herritarren arteko elkarbizitza bilatzen duena. Besteak beste, hori lortzeko lanean ari da Sakanako Garapen Agentzia

#### Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoa aurrera ateratzea da Sakanako Garapen Agentziaren helburu nagusietako bat. Planaren barruan turismo sektorea dago, eta arlo horren baitan lan ildo batzuk markatu dituzte. "Plan Estrategikoan definitutako lan ildoak ekintzen bidez aurrera eramatea da gure helburu nagusietako bat", azaldu du Paqui Urbitarte Cabrera SGA-ren Turismo teknikariak. Besteak beste, Uharteko Arakilen kokatuta dagoen Sakanako Trail Estazioa mustu dute, eta Donejakue bidearen Galtzada bidea aurkeztuko dute aurten, Xacobeo urtea izanda.

#### Zeintzuk dira SGA-ren turismo arloaren erronkak?

Turismo enpresen arteko elkarlana sustatzea, ahalik eta eragile gehien inplikatu proiektuetan, elkarlan proiektu horiek definitu eta aurreko urteetan lantzen ibili garen eta hasita ditugun hainbat proiektu plazaratzea. Horren eredu izan daitezke mustu berri den Sakanako Trail Estazioa, proiektu honetan eragileen arteko elkarlana nabarmendu beharra dago, Sakanako mendi laster-

keta antolatzaile taldeekin elkarlanean eraiki da trail estazioa; edota prozesuan dagoen Donejakue bide ziklablea, aurten proiektu eraikitzailean egingo dena.

#### Zein da turismoaren egoera Sakanan?

Momentu honetan, kontuan hartuta pandemia egoeran gaudela, COVID-19aren eragina ukazina da. Errealitatea da. Turismo enpresek jasan duten eta jasaten ari diren eragina ikusten da. Enpresa gehienak, izan diren murrizketak direla eta, bertan behera utzitako erreserbek diru sarreretan eragina izan dute. Baina beraien gastu finkoak ordaintzen jarraitu behar izan dute. Orduan, egoera zaila da, baina aipatzekoa da ere, nahiz eta egoera zail batean egon, turismo enpresa berriak sortu direla. Batez ere ostatuak ireki dituzte. Kasu honetan erronka da lanpostu iraunkorrak izan daitezela, profesionalizazio maila altukoak eta jarraikortasuna izan dezatela bermatu.

**Zergatik da garrantzitsua turismoa?** Turismoa garrantzitsua da, alde batetik, gure ondarea ezagutze-

ra eman eta balioan jartzen lagundu dezakeelako; gure historia eta ondarea bisitariei ezagutzera emateko. Bestetik, lanpostuak sor ditzakeelako. Azpiegiturak ere sortzen dira turismoari esker. Bisitari horien profilen arabera eta haien beharren arabera, produktu turistikoak sor daitezke, eta aukerak sortu. Ondo egindako turismo iraunkor bat egiten bada eta ekonomian, bizi kalitatean eta ingurumenean inpaktu positiboa badu, garrantzitsua da.

#### Zein da ibarrean turismoa bultzatzearen helburua?

Helburua da turismoari lotutako edo sortzen diren lanpostu horiek iraunkorrak izatea, profesionalizazio maila handiarekin eta jarraikortasuna izango dutenak. Aurreko urtean hasi ginen eta aurten bigarren fasean egiten ari garen turismo sektorearen diagnosiarekin ari gara, eta ezagutzen genituen hainbat egoera azaldu dira: badaude hainbat turismo enpresa adin bateko jendeak kudeatzen dituenak, jubilaziotik gertu daudenak, eta belaunaldien arteko erreleborik gabe daudenak. Beste hainbat enpresek bigarren diru iturri dute beraien enpresa, eta profesionalizazio maila ez da hain altua. Horiek ez dira bakarrik Garapen Agentziaren helburuak; helburu orokorrak dira.

#### Zer nolako turismoa lortu nahi da?

Turismo iraunkorra bultzatu nahi da. Hemen sustatzen ari den turismo mota iraunkorra da. Bisitarien eta bertan bizi diren herritarren arteko elkarbizitza bilatzen duena, masifikaziorik gabekoa. Pandemiara garaietan, agian, ibilbideetako hainbat puntutan masifikazio apur bat ikusi da jendeak natura bilatzen zuelako, eta toki horiek zertxobait

"Donejakue bidea errealitate bat da, aurretik galtzada zegoen; ondarearen parte dira"


masifikatu dira. Baina orokorrean masifikazioa ekidin nahi da. Gure ondare naturala eta kulturala zaintzen duen turismoa. Baita ekarpen ekonomikoa sustatzen duen turismoa ere. Etortzen diren bisitariek bertan kontsumitu dezaten, ekarpen ekonomikoa eginez eta inpaktu ekonomikoa sortuz. Gure bizi kalitatearen eta ingurumenean inpaktu positiboa bilatuz.

#### Hori lortzeko, zer estrategia jarraitzen duzue?

Lantzen ari diren eta landuko diren proiektu guztiek parametro horiek eduki behar dituzte. Ingurunean masifikazio bat ekarriko duten proiektuak sustatzeak ez du lekurik. Dena oso orekatsuta egon behar du. Sortuko diren produktuak irizpide horiek eduki behar dituzte: mugikortasunari lotutako proiektuak sustatzea herriak konektatuz modu iraunkor batean. Bizikletari lotutako produktuak, esaterako: Sakanako ibilbide ziklatua, oinez egiteko ibilbide sarea... Beste puntu garrantzitsu bat tokiko produktuak sustatzea da; baloreen jartzea eta ezagutzera ematea. Hemen dauden ekoizle txikien produktuak ezagutzera ematea, eta erostera edo hemengo jate-txeetara dastatzera gonbidatzea. Ekarpene hori bilatzen da ere. Beraz, proiektu guztiek iraunkorrak izan behar dute bai bertakoendako bai ingurunearekiko, eta kalitatezko elkarbizitza sortzen dutenak.

#### Nola prestatzen ari da Sakanako turismoa?

Orain arte Sakanan izan ez diren azpiegitura turistikoak sortuz. Proiektuek hori bilatzen dute. Turismoari lotutakoak izan daitezke, Donejakue bidea berreskuratzea ibilbide bezala, gure ondarea eta historia ezagutzeko herriak konektatuz, Sakanako ezagutzeko aukera ematen duen ibilbide ziklablea, mendian kirola egitea gustatzen zaienendako Trail Estazioa... Horiek ereduak izan daitezke. Proiektuak identifikatu, landu eta sortu.



#### TURISTAK

##### Zergatik etorri Sakanara?

Nabarmendu beharko genituzke batez ere Sakanaren ondare naturala eta kulturala. Anitza da, oso anitza. Sakandarrok gozatzin duguna, hemen bizi garenok gozatzin duguna, bisitariei eskaini. Ondare naturala, kirola naturan egiteko aukera, ibilbide sarearen bitartez gure ohiturak, historia eta abar ezagutzera eman... Gure kulturaren parte sentiarazi. Horregatik etorri behar da jendea Sakanara, hau dena ezagutzera. Ingurune zaindu bat aurkituko dute, herri biziak, biztanleak dituztenak eta mugimendua daukatenak. Baina, batez ere, gure ondarea.

##### Nondik dator jendea, eta zer bilatzen du?

Azkeneko datuak 2019koak dira, Aralarren jartzen dugun turismo informazio puntukoak. Aurreko urtean pandemiagatik itxita egon zenez, ez dugu daturik. Sakanara batez ere, eta ez da nobedade bat, Euskal Autonomia Erkidegoko bisitak jasotzen ditugu. Katalunia, Madril, Valentzia... Espainiar estatuko hiriburu nagusietatik etortzen dira ere. Gure inguruneak erakarrita iristen dira gehienak, baita lasaitasunaren bila ere. Gure gastronomia, kirola naturan egiteko aukera hori...



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea - Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





modu nahiko irekian egindako proiektu bat da. Mugikortasun aktibo eta iraunkorrari lotutako proiektua da ere. Sakanako herriak lotzeko modu seguru bat da, oinez edo ibilbide ziklablea.

**Nolakoa da?**

Hainbat irizpide kontuan hartu dira. Alde batetik, alde historikoa edo historikoki Donejakue bidea nondik pasatzen zen. Badakigu Astorga-Bordele galtzada erromatarra erabiltzen zutela erromesek. Beste parametro bat herriguneak lotzea izan da, herrietan inpaktu ekonomikoa sortzeko asmoz. Irizpide asko izan dira kontuan trazadura egiteko. Ez dugu bakarrik bisitariendako egin, sakandarrendako egin nahi izan dugu ere. Oso ibilbide polita da, oso atsegina eta Sakandarrei ezagutzen ez dituzten hainbat txoko eta leku izugarri ezagutaraziko dizkie. Sakanako ibilbide sarearen beste ibilbide bat da ere, kontzeptu historiko hori atzean duena.

**Nondik nora doa?**

Sakanako tartea Irurtzundik Ziordira doa. 45 bat kilometro dira, eta berez bi etapatan egiteko izango litzateke, baina hementxo norbaitek egin nahi badu, bere

martxan egin dezake. Donejakue bidean kontuan izaten diren eguneko tarteen arabera, egunean 20 edo 25 kilometro egiten dira, eta bi egun izango lirateke: Irurtzun -Lakuntza eta Lakuntza-Ziordia, gutxi gorabehera. Nork bere martxa markatzen du.

**Erlijiotik harago doan bidea da. Zer eskaintzen du?**

Donejakue bidea errealitate bat da. Bere garaian, hemendik erromesak pasatzen ziren, eta beraiek iritsi aurretik galtzada bat zegoen: Astorga-Bordele galtzada erromatarra. Gure ondarearen parte da. Sakana betidanik izan da bidegurutzea. Bide asko pasatzen ziren hemendik. Orduan, bide edo trazadura hori gure ondarearen eta historiaren zati bat da, eta ezagutzeko aukera ematen digu Donejakue bideak. Egiarretako Santiago Itxaspe-rriko baselizaren ondotik pasatzen da, Uharte Arakilgo Zamartze monasteriotik, Bakaikuko Santiago baselizatik eta abarretatik. Horiek dira mugarri eza-gunenatarikoak. Baina herriak lotzen ditu ere. Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain bezalako herrigune tradizionalak. Harrizko

etxe handiak ikusteko aukera ematen du. Edo herrigune handiagoak, Irurtzun, Etxarri Arantza, Altsasu eta Olazti bezalakoak, komertzioa dutenak. Aukera anitzak eskaintzen ditu, erabiltzailearen interesen arabera. Zerbitzu asko daude ere: ostatuak, jatetxeak... Gaur egun Donejakue bidea egiten dutenek motibazio asko dituzte: erlijiosoak, aisia, turismoa, tokiak ezagutu... Aipatu behar dut momentuz ez dugula mustutze ofizialik egin. Ibilbidea balizatu dugu, eta uda amaiera aldera ibilbidea ezagutzeko ekimenak antolatuko ditugu. Egitaraua erabat lotutakoan jakinaraziko dugu. Berreskuratzen gabiltza, eta horretan gaude. Aurten, gainera, urte berezia da Xacobeo delako. Bi urte jarraian izango dira, eta baliatu nahi dugu egitaraua egiteko. Santiagori lotutako produktu turistikoak lantzeko eta ezagutzera emateko. Galtzadako bidea deitu dugu, aukera ugariaren artean hausnartu ondoren. Nahiz eta orain bisualki galtzada ez ikusi, erromesak galtzadatik pasatzen zirenez, aitortza hori egin nahi izan dugu.

**GALTZADAKO BIDEA**

**Donejakue bidea berreskuratze lanetan ari zarete.**

Bidea berreskuratzen ari gara, horretan gabiltza. 2016 urtean hasi ginen proiektu honetan lanean edo forma ematen. Agian orain bisualagoa da herrietan seinaleak ikusten direlako, baina

mustutzea edo ezagutzera ematea oraindik ez dugu egin. Hori lantzen ari gara orain. Proiektu honi forma ematen jende askok parte hartu du. Sakanan Santiago bideari lotutako boluntario talde bat dago, eta beraien iniziatiba izan zen. Sakanatik pasatzen zen Santiago bidea berreskuratzekeo ideia hortik sortu zen. Orduan,

Oin Klinika  
Clínica del Pie

**NEREA ARGOMANIZ SALDAÑA**  
PODOLOGOA (KOL. 65)

691 066 504  
Zelandi, 12 · ALTSASU

**Udan gozatu gure artisau ogiekin eta gosariekkin**

**PORTUKO**  
okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Arantza: 948 460 988

ISOLAMENDUAK  
ISOLAGOIEN  
AISLAMIENTOS

**ISOLAGOIEN**

660 091 456 - 647 913 740  
ALTSASU - NAFARROA

**peluquería nueva imagen ileapaindegia**

San Juan 54 ALTSASU  
948 467 074  
www.peluquerianuevaimagen.com

**JAVIER ZELAIA**  
Pintura eta mikrozesmentua

Zaharberritzeak eta obra berria

Barneko dekorazioa

Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

**648 143 615 ALTSASU**

**Pinpilinpauxa**

0-16 urte bitarteko haurrentzako moda

Isidoro Melero, 25 behea  
Altsasu  
948 56 44 52

pinpilinpauxa

# 4 UDA SAKANAN ARAKIL

## Herriaren mugimendua

Zortzi gaztek osatzen dute Txoripanak dantza taldea. Etxarrenen sortu zen, eta bertan egiten dituzte entseguak, aire zabalean edo frontoian, eguraldiaren arabera

### Erkuden Ruiz Barroso ARAKIL

Etxarrego plazatik pasatzen sorpresa handia hartzen dute bertakoek eta bisitariak: Txoripanak dantza taldearen emanaldia ikusteko aukera dute. Entseguak herriko plazan, parkean edo frontoian egiten dituzte, eguraldiaren arabera, eta dagoneko etxarrendarrak ohituta dauden arren, kanpotik etortzen direnek hasieran kuriositatez begiratzen dute. Emanaldi berezia ikustera gelditzen direnak ere badira.

Elisa Vicente, Maialen Guajan, Leyre Zudaire, Paula Zudaire, Haizea Guajan, Judith Guajan, Nahia Iribarren eta Olaia Zabaleta etxarrendarrek osatzen dute Txoripanak taldea. Helduenak 20 urte ditu, eta gazteenak 9 urte. 13, 16 eta 17 urteko dantzariak daude. Oso gazteak dira. Txoripanak izena kasualitatez sortu zen: "Lagun bat herrira etortzen zen, eta 'ai, nire txoripana!' deitzen zidan. Lehenengo aldiz emanaldia egin behar genuenean esan ziguten taldearen izena behar zutela, eta Txoripanak ateratu zen. Ez genekien zer izen jarri. Hori jarri genion, eta horrela gelditu da".

Taldea 2016. urtean sortu zuten. "Hasieran ez ginen taldekide hauek. Maialen eta biak geunden, beste bi lagunekin batera. Duela bi urte txikienak sartu ziren, eta azkenak Paula eta Leire", azaldu du Elisak. Maialenen etxean bideoak ikusten hasi zen dena: "Esan genuen: goa-

zen koreografia hori kopiatzera!". Ondoren, ikasitako koreografia hori kalean entseatzeko hasi ziren, "Olaiaren aitak ikusi gintuen, eta festetan dantzatzea proposatu zuen". Animatu ziren, eta horrela hasi ziren Etxarrego festetan dantzatzeko. Orduetik urtero dantzatzeko dute festetan. Aurten, festak bertan behera gelditu diren arren, Txoripanak taldeak emanaldia eskainiko du Etxarrego plazan uztailaren 31n, larunbata (19:00etan).

Youtubeko bideoak ikusten eta kopiatzen hasi ziren, eta denborekin estilo propioa garatzen joan ziren Txoripanak taldeko dantzariak. Gaur egun, Maialen eta Elisa Iruñeko dantza eskola batera joaten dira, eta taldeko irakasleak edo koreografoak dira. Denak batera dantzatzeko dute, baina hiru talde osatzen dituzte ere: hiru txikienek talde bat osatzen dute, ertainak deitzen dituztenek beste bat, eta handiek beste bat.

### Dantza

Dantza modernoa egiten dute. "hip hopa dela esaten dugu". *Hou-se, waacking* eta abar gaineratu du Nahia: "Irratian ateratzen diren abestiak hartzen ditugu". Hortaz, pop musika erabili ohi dute, "dantzatzeko errazagoa delako", Elisak azaldu duenez. Baina azken aldian rock musikarekin "esperimentatzen" aritu dira, eta



Mäneskin talde italiarraren musikarekin koreografiak egin dituzte. "Ez da erraza, baina lortu dugu". Guztira, taldearen zazpi abestirekin egin dituzte dantzak. Taldekideen musika eta koreografia gustukoan artean talde italiarraren abestiak daude ere: *Zitti E Buoni* Eurovision lehiaketako irabazlea, *Beggin*, *For your love* eta *Are you ready?* Bestetik, *Comme d'habitude*, *Euphoria* edo *Isla Bonita* bezalako klasikoak dantzatzeko gustatzen zaie ere.

Egunero entseatzeko ikusteko aukera dago. Gutxi gorabehera zazpi ordu entseatzeko dute uda garaian oporretan daudenean. Ikasturtean zehar klasean daudelako, bestela dantzaren egonen ziren ere. Plazan, parkean eta frontoian entrenatzen dira, goizez bi ordu eta arratsalde bost gutxi gorabehera. Haien artean hitz egiteko

**Entseguak herriko plazan, parkean edo frontoian egiten dituzte**

baliatzen dituzte entseguak ere. "Batzuk dantzatzeko bitartean, besteak hitz egiten egoten dira". Etxarrendarrak ohituta daude, eta kanpotik etortzen direnek ikusten dituztenean begiratzen dutela azaldu dute, "eta batzuk entseguak ikustera gelditzen dira ere".

### Pasioa

Bederatzi urterekin, Nahia Txoripanak taldeko txikiena da. "Ikusten genituen dantzatzeko, eta guri ere gustatzen zitzaigun. Orduan, hasi ginen dantzatzeko. Ez naiz ongi gogoratzen nola sartu nintzen". Oso gustura aritzen dira, asko gustatzen zaie dantza egitea, eta taldean jarraituko dute. Entseguak ikusten "eserita" egoten zirela esan du Elisak, "eta eserita egoteko, etorri dantzatzera!". Nahia lukete jende gehiago egotea: "Herrian jendea badago, eta dantzatzeko duten txikiak ere bai. Taldean sartzeko esaten diegu".

Etxarrego festetan Txoripanak dantza taldearen emanaldia ezinbesteko bat da, eta Olentzero egunean ere emanaldia egiten dutela esan dute dantzariak. "He-

men Etxarrenen festa pila bat ditugu. Edozein egunetan barbakoa eginen dugula esan eta... festa!". Horieta ere ikuskizuna egiten dute. Arakildik ere ateratu dira, eta Etxarri Aranazko eta Altsasuko play back lehiaketetan parte hartu dute, "eta beti irabazi dugu", esan du Maialenek. Lehenengo aldian espektazioarekin hartu zituzten, "bigarrenean ja begiratzen ziguten pentsatuz: hauek berriro?". Egiarretako festetan emanaldia egin behar zuten, "baina koronabirusarekin...". Pandemia bukatzean play back lehiaketetan parte hartzen jarraituko dutela aurreikusten dute, baita beste batzuetara zabalduko dira. "Frontoian pilotan jokatzeko aritzen diren batzuek esan ziguten ea zergatik ez garen Got Talent saiora aurkeztu eta, zergatik ez?". Entrenamendu gehiago beharko dituztela esan du Elisak. Baina horrelakoetara aurkezteko ilusioa dute. Jendea gehiagorengana iritsi nahi dute. "Hemen jendeak ikusten gaitu, herrikoek ezagutzen gaituzte, baina telebistara joatea mundiala izanen litzateke".

Mikel Arregui, 6 Lakuntza

pescaderia Tania arraindegia

948 576 300 654 384 091

www.pescaderiatania.com

AGENCIA DE TRANSPORTES

Juan Ramón Arregui  
608 286 404

TRANSPORTES JUAN RAMÓN ARREGUI S.L.  
Sarrate industrialdea, 1 | Larrañeta 7 | 31830 Lakuntza  
Tel./Fax: 948 57 60 44 / Tel.: 948 57 63 16  
info@transarregui.com

NEMOSINE AV

WEB BIDEOA DISEINUA AIREKO IRUDIAK ARGAZKIGINTZA MARKETING DIGITALA

info@nemosine-av.com  
687 63 31 05

# Biaizpe, Joseba Arlegiren begietatik

Biaizpe eskalatzeko aukera ugari daude: bide luze klasikoak, bide luze ekipatuak eta kirol eskalada sektorea. Guztia toki berean. Biaizpeko eskalada gunearen historia errepasatu du bideak egoki egoteko mantenu lan itzela egiten duen Joseba Arlegi Lakuntza irurtzundarrak

**Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN**  
Irurtzunera joan, eta Biaizperi begira gelditzea dena da bat. Biaizpe eskalada gunearak zein aukera eskaintzen dituen galdezteko Joseba Arlegi Lakuntza eskalatzaile eta ekipatzaile irurtzundarrarengan jo dugu. Ezin genezake sherpa hoberik topatu, Biaizpeko bide asko berak eta bere kideek sortu, ekipatu eta mantendu baitituzte.

Biaizpek bere garaian izen handia zuela aipatu du Arlegik. "Euskal Herrian eskaladaren hastapenetan egon zen leku garrantzitsuenetako bat izan zen. Nafarroan lehendabiziko eskaladak Leiren eta Etxaurin egin ziren, 1946an. Biaizpen saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Hurrengo urtean, 1947an, eskalatzaile kataluniar batzuk Haitz Handian, behetik *Caballé* bide ezaguna zabaltzea eta goraino igotzea lortu zuten. 50. eta 60. hamarkadetan, eskalatzaile gipuzkoarrak ibili ziren, eta Haitz Handiko ekialde aurpegian lehendabiziko igoera egin zuten, bi bibak-ekin, bertan lo eginez. Euskal Herrian, Biaizpen erabili ziren lehenengoz bibak-ak. 70. eta 80. hamarkadetan, mugimendua egon zen Biaizpen, eskalada klasikoak eta ibilbide luzeetakoa. Baina hor geratu egin zen, jendea

gehienbat kirol eskalada egiten hasi zelako, eta Biaizpen ez zuelako inork kirol eskaladaren lekukoa hartu. Etxauri, Eginon... bideak ekipatzen hasi ziren, bide motzagoak baina zailagoak. Hori Biaizpen ez zen egin, geroago guk ekipatu arte. Urte haietan Irurtzunge eskalatzaile bat bere kabuz ibili zen. Sektoreren bat ekipatu zuen, eta ondoren guk hartu genuen lekukoa, guztia ia abandonatuta zegoenean" azaldu du Arlegik.

Joseba Arlegi eta bere lagunak, eskaladan hastearekin batera, Biaizpeko bide zaharrak berrekipatzen hasi ziren, asko egoera penagarrian zeudelako, arrisku-tsu. "Ismael Makeda hasi zen, eta guk laguntzen genion. Eskuz egiten genuen, taladrorik eta halakorik gabe. Etxaurira eta Uharteko Aiztondora joan, ideiak hartu eta Biaizpe berrekipatzen hasi ginen. Lan handia izan zen. Gauza batzuk ongi eginak egongo dira eta beste batzuk, agian, ez dira horren ongi egongo, baina hona ez zen inor etortzen eta guk ahal genuena egin genuen. Bide zaharrak berrekipatu ziren, eta bide berriak ekipatu ziren. Zenbait sakandar aritu ziren gurekin, Aritz Artieda, Pumorin zendu zena, edo Jaime Sanzol, esaterako" gogoratu du.

Eurek egindako lanari esker, gaur egun eskalatzaile asko gerturatu dira Biaizpera eta berriro izena hartu du.

## Denetarik, toki berean

Biaizpek aukera ugari eskaintzen dizkie eskalatzaileei. "Batetik, bide luzeak daude, klasikoak, autobabesekoak. Ez daude guztiz ekipatuta, eta norbera bere babespenak jartzen eta kentzen joan behar da. Alpinismo kutsua du. Bestetik, badaude bide luzeak baina guztiz ekipatuta daudenak, multi-peach esaten zaienak, 200 metro edo 180 metroko luzera dutenak. Eta badaude ere kirol eskalada deritzogun sektoreak, ekipatuta, 20-30 metroko igoera izanzen dutenak. Gune berak eskalatzeko hiru aukerak eskaintzen ditu, eta alde horretatik erreferentia da Nafarroan" nabarmendu du Arlegik.

Zailtasunaren aldetik, bide luzeetan errazena 5+ maila izango du, eta kirol eskaladako sektoreetan 8. mailara iristen diren bideak ere daude. "Bide luzeak atsegin dituzten eskalatzaileak Biaizpera etortzen dira, Euskal Herrian ez dagoelako 200 metroko bide askorik. Eta beste ezaugarri garrantzitsu bat du Biaizpek: orientazio asko ditu. Hegoa, iparra, ekia..."



## Arlegiren gida

Bide horiek guztiak jasotzeko liburuxka bat egin zuen bere garaian Josebak, baina zaharkituta gelditu da. "Anaiak bere enpresako webgunera nik jasota nuen informazioa igo zuen, bideak eta krokisak. Urteetan hona etortzeko erreferentzia izan zen, baina jada ez dago. Informazioa guztia dut ordenagailuan jasoa, baina hura antolatu nahi dut, eguneratu, txukun jarri eta inprimatu" azaldu du eskalatzaileak. "Informazioa nahi duenak Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko webgunean Biaizpeko krokis dezente topatuko ditu, guk federaziora bidalitakoak.

Eta eskatzen didanari informazioa ematen diot. Bestalde, partikular batek Nafarroako Eskalada Gida publikatuko du udazken aldera, eta gidarako ere informazioa eskatu ziguten" gaineratu du.

Biaizpen, eskalada luzeko bi-deetan, Haitz Txikian 9 bide luze inguru daude (*Txemi, Herri baten sustraiak, Pirulo Mogollon, Born to be wilde, Axuri Dantza...*) eta Haitz Handian 10 bide inguru (*Caballé, Gora gu ta gutarrak, Patxi Berrio, Giovanni corpocorto, Aixita...*) Horiei kirol eskalada bideak (*Adaptarse o morir* eta beste ugari) gehitu behar zaizkie. Eta, guztiak zaintzen, Joseba Arlegi. Bejondeiola.

**IKER ETXAK FELIX HARATEGIA**

948 467 677  
Travesía Pilotajoko, 3 - Altsasu

TXAPA  
ETA MARGOA  
MOTA GUZTIETAKO  
IBILGAILUEN  
KONPONKETA  
ERROTULUAK  
MARGOA LABEAN  
ADEITASUN  
AUTOA DOAN

CHAPA Y PINTURA GOÑI  
desde 1980 tik IRURTZUN

AKABORRO INDUSTRIALDEA · IRURTZUN  
680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

**LA TAHONA**  
Zugandik gertuago

948 500 306 · San Martín · Irurtzun



## Irañetan poteatzen zen garaiko kontuak

Plazan taberna eta udaletxean ostatua. Azken horretan bi urte pasa egon zen Arantxa Beraza Gastesi. Eta haiek itxi ondoren publikoari zabalik zegoen elkartean sei urte baino gehiago. Orduko ostatu kontuak ekarri ditu gogora

**Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA**  
Herriaren erdian, plazan, taberna zegoen, eta, udaletxearen beheko partean, ostatua, sartu eta ezkerretara. Kale Nagusira ematen duten herriaren etxeko bi leihoek, luzera hori zuen ostatu hark. Atetik gertuen dagoen leihoaren parean sukalde zegoen armairua eta ekonomikarekin. Bestearen azpian mahai luze bat eta bi aulki luze eta 22 pertsonarendako tokia zutenak. "Mahai jende gehiago sar zedin guztiak elkarri pega-pega eginda esertzen ziren. Paretaren kontra zeudenak, komunera joateko, zutitu eta

mahai gainetik joaten ziren" argitu du Berazak.

Taberna eta ostatuko garaian, irintarrak batean eta bestean potean ibiltzen ziren. "Baina ostatuan mahai hartzen lehenak zirenak ez ziren zutitzen", gogoratu du Berazak. 19 urte zituela hasi zen han lanean, eta oroitzapen ezin hobeak gordetzen ditu. "Jende guztia elkartzen zen, bazkari-afariak, mus txapelketak... egiten ziren. Kantu eta poz giroa zegoen. Oroitzapen onak besterik ez ditut", azaldu du.

Bazkari-afariak izanzen zirela aurretik gatzigatzen zieten ere.

"Denetarik egiten zen, baina ez zen ohikoena. Legatza kazola eta txuleta bat, esaterako. Mokadutan jateko txistorra edo dena delakoa egiten zen. Zartagina atera eta aurrera". Afaltzeko eskatzen zutenean ostatukoena zen jakiak eskuratzeko ardura. Udalak ere bere afariren bat egiten zuela ere gogoan du Berazak. Jatekoen artean ohikoena ziren: txerri hankak eta belarriak, karramarroak, barrukiak... "Eta jendeak ehizatzen zuena: azeria, erbia... Behin batez azkonarra prestatu genuen. Hori ere ekaritzen zuten. Amak edo aitak era-

kusten zizun, egin eta jaten zuten. Ez dakit ona edo txarra egonen zen, baina jaten zuten", gaineratu du ostalari ohiak.

Ostatutik herri guztia pasatzen zela gogoan du Berazak, "gazte zein zahar". Bezero gehienak irintarrak ziren, beste herrietakoren bat beti pasatzen zen. "Hozte azabatzen zeudenak ekonomikaren inguruan jartzen ziren. Han zaudela arazoak dituenari laguntzen diozu ere. Ezkongabe asko zeuden. Bakarrik bizi zirenak... Denetarik egiten zen. Pixka bat laguntzen duzu. Familia handi bat bezalakoa zen, herri guztia elkarrekin bizi zen".

Emakumezkoek galdetuta, "beti bakarren bat. Gu gazte ginela joaten hasi ginen. Gu baino helduagoak zirenak, agian festetan. Bestela, emakumezkoak ez ziren ateratzen. Kartetan etxeetako txokoetan jolasten zuten". Irañetan hainbat etxe elkarren ondoan daude eta L forma hartzen dute fatxadek. "Han mahai jarri eta kalean kartetan jokatzeko zuten. Korratz lan asko egiten zuten ere".

### Kluba

"Irañetan garai batean haur pila zeuden. Eta gizonezko eta emakumezko irakasle bana zeuden" argitu digu Berazak. Udaletxeari itsatsia mutikoen eskola zegoen, egungo elkartea dena. Neskek udaletxean ikasten zuten, herri sarreran eskola berria egin zieten arte. Haur kopurua jaistean, neska-mutilak elkarrekin hasi ziren ikasten, eta irakasle bakarra nahikoa zen.

Mutikoen eskola zena urte batzuek hutsik egon ondoren, taberna ixtean, elkarrekin erabilerara eman zioten. "Ostatuko paretan ate bat zabaldu eta eskolako aretara ematen zuen. Zirkulo deitzen

zioten garai hartan, eta telebista jarri zuten. Jendea eserita egoteko mahaiak zeuden. Jende gehiago zebilen. Nik ostatua utzi nuen". Elkarrekin moduan jarri zuten. Hura "desberdina" izan zen, "giroak eta sukaldeak berdin segitzen zuen. Antza, hasiera hartan elkarrekin ez zuten ongiegi funtzionatu, eta kudeatzeko eman zuten. Hainbaten eskuetatik pasa zen: "Eta alaba uztear zela, nik hartu nuen elkarrekin", azaldu du Berazak. Koinatarekin batera egon zen elkarrekin, "haurrekin-eta, ezin nuen bakarrik. Bien artean ongi moldatu ginen".

Ostatuarekin konparatuta, "beste gauza bat zen. Tokia handia zen, barra jarri zen, lauzak jarri ziren... Beste mugimendu bat zegoen, eta igandeetan zerbitzatzen zen pintxo kantitatea izugarria zen". Berazak azaldu duenez, "han segitzen zuen ostatua izan zeneko sukaldeak, jendeak mahai hartan egotea gogoko zuen". Elkarrekin giroa ederra izaten segitzen zuela azaldu du irintarrak, "jende gehiago joaten zen hara".

Irintarrez aparte, pasan zegoen jendea ere sartzen zen. Pasadizo baten berri eman digu Berazak: "mendizale batzuk mendi bueltaren ondoren sartu, aldetara harrituta begiratu, eta galdetu zuten: zenbat biztanle ditu herri honek? 165 bat erantzun zieten. Eta mendizaleek erantzun zuten: bada, gutxienez 400 izan behar ditu, hemen 165 baitaude!"

Ostatua eta eskola zena "erabat hondatuta zeudelako" itxi zuten lehen elkarrekin hura: "urtearen joanak, hura zabaltzeko gutxieneko lanak egin ziren... Lanak egin eta, atzera elkarrekin izatera pasa zen". Gaur egungo Txapel Azpi elkarrekin.

Lakuntzeko auskias akordetzen yeiz?

Agorrillen 25ien yonen ga!

OGI BERRI  
APUR LAKUNTZA

Mikel Arregi 7 · Lakuntza  
669 426 335  
iratxo@hotmail.com

TXIMONENA  
Taberna-jatetxea

SUKALDE ZERBITZUA

OSTEGUNA Afariak  
OSTIRALA ETA LARUNBATA Bazkariak eta afariak  
IGANDEA ETA ASTELEHENA Bazkariak

GAINONTZEKO EGUNETAN KONTSULTATU AUKERAK

948 46 48 96  
Herriko plaza (Lakuntza)

# ARAKIL

AGORRILA

## Larunbata 7

19:00 La mochila de Eva antzezlanaren emanaldia. Errotzeko elkartean.

22:30 Izarren behaketa. Sakanako Garapen Agentzia, Aralar elkarte eta Plazaola Turismo Patzuergoa. Izena ematea: observaelcielo.com. 10 euro  
Itxasperrin, Egiarretan.

## Ostirala 13

18:30 Barazkien estanzazio tailerra Garazi Valluercarekin. Izurdiagako elkartean.

## Larunbata 14

10:30 Barazkien estanzazio tailerra Garazi Valluercarekin. Ihabarko elkartean.

## Igandea 29

18:30 Micromundos akrobazia ikuskizuna. Satrustegiko elkartean.

# IRURTZUN

GARILA

## Ostirala 30

20:00 Musika parkean: Txamukos Mariatxiak taldearen kontzertua. Gernika parkean.

AGORRILA

## Igandea 1

20:00 Hutsun txalaparta taldearen eta Ortzi artistaren Urbasa musika eta zirku ikuskizuna. Plazan.

## Asteazkena 4

22:00 Udako zinema: Akelarre filmaren emanaldia. Foru plazan.

## Ostirala 6

20:00 Musika parkean: Demode Quarter taldearen kontzertua. Gernika parkean.

## Osteguna 12

17:00 Kalistenia tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Igerilekuan.

## Ostirala 13

20:00 Musika parkean: The Road Xabier Artieda eta Rafa Alcaizaren musika eta antzerki ikuskizuna. Gernika parkean.

## Larunbata 28

08:30 La Peluso BTT Xtreme mendi lasterketa. Antolatzailea: Irurtzun Taldea Kirol Elkarte. Plazatik.

# UHARTE A.

GARILA

## Larunbata 31

09:15 Bisita gidatua: Aralarko hegaztiak ezagutzen Miruaren eskutik. Lau orduko ibilbidea. Guardetxeko aparkalekuan.

AGORRILA

## Igandea 1

09:00 Mendi Martxa antiespezista Aralarren. Euskal Herriko mugimendu antiespezistak antolatuta.

09:45 Bisita gidatua: Aralarko arkuak (harrizko etxola tradizionalak) eta begiratokiak Miruaren eskutik. Lau ordu eta erdiko ibilbidea. Aralarko santutegitik.

## Igandea 8

09:45 Bisita gidatua: Aralarko trikuharria eta paisaiak Miruaren eskutik. Hiru orduko ibilbidea. Aralarko santutegitik.

## Larunbata 14

09:15 Bisita gidatua: Aralarko hegaztiak ezagutzen Miruaren eskutik. Guardetxeko aparkalekuan.

## Larunbata 28

10:00 Orientazioa lagunekin

# UDA SAKANAN AGENDA 7

## ARBIZU

GARILA

## Larunbata 31

18:00 Eneritz Artetxe ipuin kontalaria. Plazan.  
19:00 Hiru H Lesakako musikarien kontzertua. Plazan.

AGORRILA

## Larunbata 7

19:00 Alaitzen udako kultur egitaraua: Patata tropikala konpainiaren Azken eguzkilorea ikuskizuna. Plazan.  
21:30 Alaitzen udako kultur egitaraua: Alerta Gorria taldearen kontzertua. Plazan.

## Asteazkena 11

17:00 Kalistenia tailerra. Kattuka ondoan dagoen Kalistenia parkean.

## Igandea 29

09:30 Tritoiena mendi lasterketa. Ekokanpinean.


\*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

**CARNICERÍA I. ARREGUI**  
**HARATEGI ETA URDAITEGIA**  
Sakanako hiltegiaren hildako haragia



Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak  
948 576 067 · 646 20 85 23  
Herriko plaza z/g · LAKUNTZA

**KALE TXIKI TABERNA**



Eguneko menua 11,90€  
Asteburuko menua 25,00€  
Lakuntza 948 57 60 09

**ARALAR**  
FERRETERIA · BURDINDEGIA

SARRAILAGINTZA  
24 H



Uriz, 18 - behea  
**LAKUNTZA**  
T. 948 46 48 06  
administracion@aralarferreteria.com

**Aliprox**



948 576 246  
Larrañeta z/g  
**LAKUNTZA**

**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com  
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tall./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikarra: 690 641 860



# 8 UDA SAKANAN UHARTE ARAKIL



## Egun pasa, eta gehiago

Uharte Arakilgo Itxesi inguruan hamaika abentura bizitzeko aukera dago. Haurrentako gaztelu erraldoia, igerilekuak, barbakoendako eta askaldegia, mustu berri duten Trail Estazioa ibilbide askoren hasiera eta gimnasioa... eta egun batekin ez bada nahikoa, furgonetarekin edo autokarabarekin atseden hartzeko autokarabana gunea ere bertan dago.





**BAXERRI  
ERRETEGIA**

Mustutzea eta terrazaren irekiera  
abuztuaren 8an 19:00etatik 22:00etara


*Sakanako zapore onarekin itzultzen gara*



948 460 737 | Fernando Urkia kalea 50 (Arbizu)



**FLORES S.L.**



Arbizu ind. Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistora

**JUANANEKO  
GAZTA**



**IDIAZABAL**

**JOXE MANVEL**  
620 795 088

**JOÑE**  
699 172 583  
948 017 517

Nagusia 24  
31839 ARBIZU   
juananekogazta@hotmail.com

[www.ZeroHiru.com](http://www.ZeroHiru.com)



**EGURREZKO  
JOSTAILUAK**





## "Herenegun gertatutakoa ere historia da"

### JOKIN LANZ BETELU HISTORIAGILEA

Historiaren berreraikuntza ahalik eta objektiboena eta osatuena egitea da historialarien lana

#### Erkuden Ruiz Barroso ARRUAZU

Historia guztiz nolakoa den ezin dela jakin azaldu du Jokin Lanz Betelu arbazuarrak. Lanz historialaria da, Antzinateko historia doktorea da, eta orain Oiasso museoan eta NUPen lan egiten du. Zenbait liburu argitaratu ditu, esaterako, *Análisis histórico y documental del castillo de Behobia (o Gazteluzar)* edo Nafarroako Gobernuak berrargitaratu duen *Baskoiak eta bere bizilagunak (K.a. II - K.o. VIII. mendeak)*.

#### Zer da historialaria izatea?

Sekula ezingo dugu jakin nolakoa zen historia. Asko jota, hurbilpen bat egin dezakegu. Dena da historia. Ez bakarrik duela 2000 urtekoa; herenegun gertatutakoa ere historia da. Orain dela 2000 urtekoaz ez dugu ia iturririk, orain dela bi urteko gauzez, bai. Baina, hala ere, ezingo dugu inoiz jakin benetan zer gertatu zen. Denok ez dugu ikuspuntu bera, informazio iturriak ez ditugu berdin baloratzen edo erabiltzen, batzuek emanen diete garrantzia handiagoa iturri batzuei, txanpon batzuei, ahozko testigantzei, arkeologiari... Historiagileak egi-

ten duena da iturri horiek guztiak baloratu eta ahalik eta berregite edo hurbilpen objektibo eta oso bat egin. Horregatik esaten dut ezinen dugula sekula jakin nolakoa zen.

#### Nondik abiatzen zara ikerketa bat egiteko?

Historiagile izateak ez du esan nahi historia osoa dakigunik. Beti gertatzen da ikasketak bukatu eta baten batek esatea tribalean zurekin jarriko dela. Baina nik ez dakit historia guztia! Panorama orokor bat egin dezaket. Dokumentatu behar naiz aurretik. Orduan, gaiaren arabera dokumentatzen naiz. Lehendabizikoa gauza da irakurtzea zer egin den gaiaren inguruan, eta, aldi berean, iturriak biltzea. Behin iturriak dituzula eta jakinda orain arte idatzi dutenak nondik abiatu diren eta zer idatzi duten, balorazio bat egin daiteke. Zer bait

"Historiagile izateak ez du esan nahi historia osoa dakigunik"

atera dezaket hemendik, edo dena esanda dago? Orduan, konturatu zaitezke ez dutela zerbait kontuan hartu. Esaterako, orain genero ikuspegia asko lantzen ari da. Horrelako hutsuneak edo parentesiak agertzen dira, eta historia-gilearen lana da horiek topatzea eta baloratzea ea merezi duen gehiago ikertzea. Badaude gai batzuk oso landuak daudenak, arriskua dago beste ideia batzuk errepikatzeke edo zure ekarpena oso txikia izateko. Beste gai batzuk modu batera edo bestera bideratu daitezke.

#### Zergatik historialaria izan?

Etxean gurasoek beti irakurri dute asko. Nobela historikoak eta abar. Nik ere bai. Txikitari komikiak irakurtzen nituen, gehienbat *Asterix eta Obelix*, *Lucky Luke*... Etxean ere entzuten dituzu kontuak. Familia guztietan beti dago bakarren bat garai bateko historiari kontatzen dituen: Gerra Zibileko kontuak, aitona lehengo ohiturak kontatzen, aita... Beti jakin-min hori izan dut. Nahiz eta nobela historikoak eta komikiak irakurri, benetako oinarri bat dute. Ikastola garaian ere gizarte irakasgaia asko gustatzen zitzaidan. Oso gustura egin nituen ikasketak. Lan munduan inprobisatzen joan naiz, eta nahiko ongi atera dira gauzak.

#### Zertan egiten duzu lan?

Bekadun hasi nintzen EHUn, Gasteizen, eta lau urtez egon nintzen. Tesia egin nuen, eta handik ikastola batera joan nintzen. Urtebete egon nintzen, eta ondoren berriz kontratatu ninduten unibertsitatean. Orain, Arkeona fundazioak kudeatzen duen Oiasso museoan nago, Iruenen. NUPen irakasgai batzuk emateko aukera sortu zitzaidan, eta ikasturte honetan ere egongo naiz.

#### Doktoretza egin zenuen. Zertan berezitu zara?

Antzinateko historian doktorea naiz. Antzinatea oso zabala da: Mesopotamia, Grezia, Erroma... eta horren barruan nik Erroma aukeratu nuen, Erroma hemen, Baskoian edo Baskoien lurraldean. Tesia idatzi nuen. Sekulako totxoa da; baina laburtu nuen, eta liburu bat argitaratu nuen: *Baskoiak eta bere bizilagunak (K.a. II. - K.o. VIII. mendeak)*. Doktoretza egin bitartean, eta ondoren ere, artikuluak publikatu ditut. Kongresuetan parte hartu dut. Guztiak gaiarekin zerikusia zutenak. Orain museo

batean nagoela, nahiz eta erromatarra izan, ikerketa ere egiten da, eta enkargu bat egin zidaten Nafarroako konkistarekin zerikusia duen gaztelu baten inguruan: Behobiako gaztelua edo Gazteluzar. Ez da nire gaia; ia mila urte geroagoko gauza da. Tesiarekin Iñigo Aritzara heldu nintzen, baina Nafarroako konkista ez nuen landu. Historialaria ere egokitu behar da.


#### Nola egiten dituzue ikerketak?

Denetariko profilak daude. Gaiaren arabera izaten da. Badaude batzuk arkeologian zentratzen direnak eta industen dutenak. Izan daitezke ikerketak idatzien gainean egindakoak. Nire kasuan, pixka bat denetarik ukitzen saiatu naiz. Esperientzia pixka bat daukat arkeologian, baina ez gehiegi. Artxi-boetan egon naiz, aztarnategie-

tan, museo bateko inskripzio bat begiratzen...

#### Espero ez zenituzten aurkikuntzak ager daitezke?

Pixka bat denetarik. Normalean, ikerketa txikietan, nondik norakoak ezagutzen dituzu. Tesia esperientzia polita izan zen, baina gorabehera handiekin. Atzera begira dezaket, eta merezi duela esan dezaket. Hasiera batean pentsatu nuen bideratzea modu batean, baina ikusi nuen lana eginda zegoela eta hortik jotzea karten gaztelu bat zela, hipotesi bat, beste bat, beste bat... Orduan, beste nonbaitetik bideratu behar duzu. Azkenean, tesia bideratu nuen diplomazia eta komunikazio politikan. Hor espero ez nituen gauzatxoak topatu nituen, eta, modu horretan, gaiari beste ikuspegi bat ematen zaio. Beste ekarpen bat ematen diozu.



#### GAZTANDEGIA

630 631 882  
info@albigaztak.com

#### BISITA GIDATUAK

681 083 409  
bisitak@albigaztak.com

www.albigaztak.com

ARRUAZU

## Munia El Marhoum Iruretagoiena

LAKUNTZA

Ismael Alegria Garcia da Kale Txikiko sukaldaria, eta Charo Iglesias Varela zerbitzaria. Sariaz, ibilbideaz eta etorkizunaz azalpenak eman dituzte.

**Lehenik eta behin, zorionak aitorten honengatik. Nola jaso duzue berria?**

**Ismael:** Egia esan ezustekoa izan da, ez genuen inondik inora espero. Lehengusina batek bidali zigun mezu bat esanez "Soletes" bat eman zigutela, eta guk ez genekien zer zen ere. Interneten bilatu genuen zer zen.

**Zer da zuendako errekonozimendu hori?**

**I.:** Argi uzten digu egiten ari garen hori ongi doala, gure ikuspegia, gure lana, hasiera batean izandako ideia berretsi egiten du. Jendearengandik jasotzen den 'feedback'-a hor dago beti, baina puntutxo bat gehiago da honelako garrantzia duen gida batek aitorten hau egitea. Sorpresa eta esker ona sentitzen dugu.

**"Soletes" zerrenda horretan egoteak jende gehiago erakarriko duela uste duzue?**

**Charo:** Jakin badakigu jende askok ikusten duela. Horregatik beldur pixka bat eman digu. Ez dugu oraindik sare sozialetan jarri, ezta pegatina lokalaren atean itsatsi ere, jende gehiegi etorriko delakoan. Pertsonal falta izan dugu, justu orain sukaldarian egoten den emakumea bajan egon da, zerbitzariak ere gutxi.

**I.:** Hain justu, jende gehiago etorriko dela uste dugulako izan da hori. Baina sukaldaria aste honetan bueltan dator; beraz, orain zabalduko dugu albistea.

**Zer da Kale Txikiko duen "ez dakit zer" hori?**



## "Sorpresa eta esker ona sentitzen dugu"

### ISMAEL ALEGRIA GARCIA ETA CHARO IGLESIAS VARELA

KALE TXIKIKO SUKALDARIA ETA ZERBITZARIA

Lakuntzako Kale Txiki Taberna 2021eko Repsol Gidako "Soletes" atalean jaso dute. Espainiako Estatu mailako jatetxeak baloratzen dituen gidaren arabera, "Soletes" zerrenda "dinamikoa" da. "Ez dakit zer" hori duten taberna eta jatetxeei ematen diete aipamena

**I.:** Lokala txikia da, sukaldaria ere bai. Baina txikia izatearen alde ona kontrola da. Jendeak asteburuko menuan pixkat gehiago ordaintzen du. Horregatik, jankide kopuru mugatua izanda, ditugun bezeroak zaintzea lortzen dugu.

**Sakanako taberna bakarra zarete zerrenda horretan. Zer desberdintzen zaituzte?**

**I.:** Hau herri txiki bateko lokal bat da. Baina, nire ustez, desberdindu egiten gara: eguneko me-

nuak lehengai freskoekin egiten ditugu, jatetxe handietan ikasi ditudan teknikak erabiltzen ditut, baina produktu merkeagoekin. Asteburuetako menua ere guztiz desberdina da, inguruko jateetxeekin konparatuta.

**Zein da zuen eskaintza?**

**I.:** Askotarikoa da. Asteazkenean eguneko menua ematen dugu, baina berezia. Larunbat eta igande eguerdian asteburuko menua daukagu, berezia hori ere. Larunbat eta igande gauetan pizzak,

hanburgesak, lapikotxoak eta abar ere ematen ditugu.

**Zer nolako bezeroak izan ohi dituzue?**

**I.:** Sakanako jendea eguneko menua jatera etortzen da, urtebetetzeak edo antzekoak ospatzera, baita Iruñetik ere. Normalean, eguneko menuak jatera datozenak kanpokoak dira.

**C.:** Haietako batzuk gero asteburuetan ere badatoz. Herriko jendea ere etortzen da, noski. Orokorrean, jende heldu edo adine-

koa izaten da. Igande eguerdian beteta egoten da.

**Zein izan da zuen ibilbidea Kale Txikirekin?**

**I.:** Aita etxe honetan jaio zen, eta orduan itxita zegoen toki hau. Horregatik, lehengusuekin hitz egin ondoren, ausartu egin ginen lokala zabaltzera. Kale Txiki hartu baino lehenago inoiz ez nuen eguneko menua zerbitzatu, eta, egia esateko, oso gustura nabil, asko disfrutatzen. Denborarekin ikasi ere egin dugu, eta gauzaren batzuk moldatu, jendearen erantzuna kontuan hartuta.

**C.:** Orain 5 urte beteko ditugu hasi ginenetik.

**Ismael, zuk ibilbide oparoa izan duzu sukaldaritzan.**

**I.:** Bai, nik betidanik argi izan dut sukaldaria izan nahi nuela. Burlatan ikasi nuen sukaldaritzan. Lehenengo Rodero jatetxean lan egin nuen. Geroago, Can Fabes Santi Santamariaren jatetxean egon nintzen urtebetez. Gero Sant Pau jatetxean, Carme Rusalleda sukaldariarenean. Santamariak beste jatetxe batzuk zabaldu zituen, eta harekin lan egin nuen. Hura hil zenean, haren presentziarik gabe, jatetxe guztiak itxi zituzten; denok lan gabe geratu ginen. Orduan Iruñera bueltatu eta urte batzuetara zabaldu genuen Kale Txiki.

**Zein da zuen etorkizuneko ikuspegia?**

**I.:** Gauza batzuk aldatu egingo ditugu. "Soletes"-arena jakin baino lehenago ere jada prest genituen.

**C.:** Bai, gauza batzuei buelta bat eman behar diegu. Azken finean, taberna bat gara, bai, baina gu bereizten gaituena janaria da, pintxoak eta eskaintzen ditugun menuak. Ditugun bezeroak kontuan hartuta, horretan zentratu nahi dugu gehiago.





**JARAIN!**

**Eraso  
sexistarik  
gabeko  
SAKANA  
libre!**

## Bordara erromeria

Abuztuaren hirugarren asteburuan arbizuarrak Sandindei bordara joaten dira, eta bertan ospakizuna egiten dute. Zunpaateko Gurutzera erromeriararen oinordekoa da Sandindei eguna

**Eneida C. M. / Erkuden R. B. ARBIZU**  
Bigarren urtez jarraian, pandemiaren eraginez, ez da Sandindei erromeria modu ofizialean antolatuko. Duela zenbait urte "sortu" zuten ospakizuna, Iruña Ginea Mundiñano arbi-

zuarrak gogoratzen duen bezala. Aurretik, ama birjiñaren hurrengo igandean, Zunpaateko Gurutzera erromeria egiten zuten, baina pixkanaka galdu zen. Duela 25 urte galduta zegoen. "Erromerian joaten zen,



948 460 027  
galartxa@galartxa.com  
www.galartxa.com

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA:**  
Utzubar Industrialdea · ARBIZU



baina galdu zen. Igotzeko bidea txarra da". Zunpaateko Gurutzera igotzen zen, bertan meza egiten zen, eta ondoren jan, edan eta kantatzen zen. "Festa hura berreskuratzea pentsatu zen, eta oinez eta autoz joateko Sandindein egitea errazago zela pentsatu zen".

Arbizun lau borda daude: Herriko borda, Mezeriain borda, Artakabar borda eta, beheko basoan dagoena, herritik gertuena, Sandindei borda. Aralar mendizerraren magalean daude, eta laurak elkartzen dituen ibilbide bat dago ere. Herriko bordak abereak eta artzainak hartzeko tokiak ziren. Gaur egun, eginkizuna mantentzen dute, eta gehienbat mendian

dauden abereak eta mendizaleak hartzeko tokiak dira.

Sandindei borda berezia dela esan daiteke: bordaren erdia abereak gordetzeko erabiltzen da eta beste erdia barbakokak eta abar egiteko. "Edozein arratsalde pasa edo egun pasa joan daiteke". Bere garaian, Nafarroako Gobernutik bordak berritzeko dirulaguntza jaso zuen Arbizuko Udalak, eta horren ondorioz egin zuten borda berria. Gineak azaldu duenez, barbakokak eta bertan egoteko txokoa herriko jendeak "borondatez" egin zituen.

Bordara iristeko, herritik "paseo polita" dago. Ez dago malda handirik, eta erraz iristen da. Herriko partzelaria hartu behar da, eta trenbide aldera jo behar da. Ondoren, zubi bat pasa behar da, baita trenbidea zeharkatzeko zubia ere. Dena eskubitara joan; ez dago bide gehiago. Basoan, bidea bukatzen denean, ezkerreko bidea hartu behar da. Herriatik ordu erdi batera gutxi gorabehera dago Sandindei borda.

gerturako den arbizuarrak. Borda zabalik egon ohi da nahi duenak erabiltzeko, eta jendeak tokia errespetatzen duela esan du Gineak.

Aurreko egunetan Arbizuko Udalak bi gurdi jartzen zituen, bertan mahaiak eta festa egiteko gauzak eramateko. "Sanjuanetako mahaiak erabiltzen dira, eta udaleko langileek eramaten dituzte, eta gero jaisten dituzte". Barra bat jartzen zuten ere. Bordaren inguruan dena prest zegoenean, arbizuarrak erromerian igotzen ziren, trikitixen laguntzarekin. "Garai batean Axiok herri kirolak egiten zituen". Lan handia egin zuen Axiok herriko ospakizunak antolatzen eta bultzatzen, Gineak gogoratu duenez. Sandindein kuadrillan bazkaltzen zen, eta, ondoren, urdaiazpiko zozketa egiten zen. Ospakizunarekin amaitzeko, herrira jaisten ziren trikitixaren doinupean. Bidean bi edo hiru geldiupe egiten zituzten, eta udalak ardoa ematen zuten.

Azken Sandindei erromeria 2019. urtean ospatu zuten, pandemia egoeratik beste festa asko bezala bertan behera gelditu zelako aurreko urtean eta aurten. "Jende gutxi dago. Abuztua ez da data hobereana jende asko oporretara joaten delako".

**BIKAIN  
GARAJEA**




**Mekanika  
Elektromekanika  
Serie 100  
pintura prototipoa  
Autokarabana eta  
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu



# DENBORA-PASAK

Aurkitu objektu hauek



# MUSIKA



## TRESNAK

Zenbat daude bakoitzetik?  HAIZEA  HARIA  PERKUSIOA

**LAMAÑO  
ETXEBERRI**

*Tratu atsegina eta gertukoa  
Ingurune paregabea  
Opor lasaiez gozatzeko  
aukera ezin hobea*

San Martzial auzoa • Bergara (GIPUZKOA) • [www.nekatur.net/lamaino](http://www.nekatur.net/lamaino) • [maitearis7@gmail.com](mailto:maitearis7@gmail.com) • 943 76 35 06 / 657 79 53 62



## HORIZONTALAK:

4. Inauguratu Sakanako hizkeran.
5. Olatzagutiko arkeologia aztarnategia.
9. Olatz ... argazkiko Ziordiko alkatea.
10. Uhartea Arakilgo industria gunea.
13. Castillo ... argazkiko idazlea.
14. Arbizu eta Bakaiku erre zituzten kanpitain honen aurkako gerran.
15. La ... musikari etxarriarrak jotzen duen taldearen izena.
16. Imanol ... argazkiko txirindularia.
18. Sakana eta Gipuzkoa lotzen dituen mendatea.
19. Uztaila Sakanako hizkeran.
21. Danel ..., Zabaletarekin batera Binakako txapelketa irabazi zuen pilotaria.
22. Hiriberri Arakilen ihoteetan erretzen duten pertsonaia.
23. San ... Beriaingo ermita.

## BERTIKALAK:

1. Mendebaldeago dagoen Arakilgo kontzejua.
2. Irurtzunen berriki ireki duten euskal txokoa.
3. Festetan kintoek dantzatzeko dutena.
4. Santa ... berritutako Bakaiku eta Iturmendiko ermita.
6. 30 urte bete ditu herri honetako elkarteak.
7. ... Vilariño argazkiko futbolaria.
8. ... Maiza argazkiko artista.
12. Elai ... Lakuntzako dantza taldea.
17. Sakanako irrati euskalduna.
20. ... Ovejero argazkiko Arruazuko alkatea.

Laguntzen dute:

**Diario** Vital FUNDACIÓI JARAIALDIA

radio vitoria

Antolatzen du:

AYUNTAMIENTO DE ASPARRINA ASPARRENEKO UDALA

Dirulaguntza ematen du:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kudeaketa eta produkzioa:

porpol

Babesten du:

araba álava foru aldundia diputación foral

KULTURAK

ARAIA-ASPARRENEKO UMORE ANTZERKIAREN JAIALDIA

# XXVII

ABUZTUAREN 12 - 15

Sarrerren salmenta eta gonbidapenen banaketa

[www.jaraialdia.com](http://www.jaraialdia.com)

# ESKEGITAKO ARROPAK



Nola esaten da Sakanan?

kaaltoxe  
-----

raaort  
-----

onga  
-----

kkeseuot oaley  
-----

jtuneaa  
-----

xzlamaottag  
-----

aoeelpñ  
-----

atazlg  
-----

aeijrs  
-----

xmaiaetk  
-----

laroeayur  
-----

naaialds  
-----

keoneuis  
-----

naoxat  
-----

kxaa  
-----

zataap  
-----

zletglzaaua  
-----

osaplt  
-----



# DERMIOEN LETRA ZOPA



E R I X P Q P A O R E T I K G Z S K L K  
 R Z A L W R S P R S A K A N A U N D I I  
 R D B Q V W U E R R U C J O S L L E B Z  
 A W N A I U R X O O I J L A X O Z N L H  
 G Z W R N Z R O B B U L R J W G Y O I A  
 E Y C P Z T A R L G N R U V A N X K T T  
 L K A E J A Z A I U O V R Z M A F V Z E  
 L K R L X D A G K T Z F V I E M R L B P  
 B O D U X N L C Z V O A M Z B T Z E C U  
 Z E A B O O L E E Z Q D R I L X A V N A  
 M J N V I N I I L B B D G O H U I X E L  
 Y A T O L U X T I G E T N I M L A S I I  
 F T Z L H Z E O T N I A G E L L A X O A  
 Y E A J A I D N U A M A R E B L Z R G V  
 I R R U T I N A U J N A S E A S Q P Z I  
 W R D R C P G P S V T Z I O N C T Y I C  
 B A A M B X Y P Q A T E R R A Z U Z A V  
 F G I Z S S A J M I C P J K H K L P L J  
 Z U N Z A R P E L U B A R R E N A Y A L  
 S M Y S S R B Y P F N P H S D Y C G A W

ALLEGAIN  
 ORAZULO  
 ZUZARRETA  
 SANJUANITURRI  
 AUPETA  
 MUGARRETA  
 ARDANTZAR  
 ILLAZARRU  
 BERAMAUNDIA  
 ARRILUZETA  
 USARRO  
 MINTEGITXULO  
 ALAIZGOIEN  
 LEGARRE  
 EZKILBORRO  
 ARPELU  
 MANGOLUZ  
 ARPELUBARRENA  
 SAKANAUNDI  
 ONDATZ

**Amaya**  
 OKINDEGIA

**ALTSASU**  
 678 323 403  
 • Iruña Hiribidea, 48  
 948 468 026  
 Zumalakarregi Plaza,3  
 670 389 017  
 • San Juan Kalea, 50  
 948 562 185  
 • Otadiko Kristo Deuna, 19

**UHARTE-ARAKIL**  
 691 83 41 36  
 • Mandikoa, 3


**VITORIA-GASTEIZ**  
 • Postas, 33  
 945 148 368  
 • Arriagako Atea, 12

**ETXARRI-ARANATZ**  
 948 461 660  
 • Kale Naguasía, 4

**OLAZTI**  
 948 468 755  
 • Orreaga Kalea, 1


**ARAIA**  
 945 314 572  
 • Andoni Urrestarazu, 3

# NON DAUDE SAKANAKO IGERILEKUAK?



# LOTU ESANAHI BEREKO HITZAK

- |               |                |
|---------------|----------------|
| 1. Aide       | ___ Egosi      |
| 2. Zizte      | ___ Senide     |
| 3. Baldarratu | ___ Zipristina |
| 4. Menddere   | ___ Ilargi     |
| 5. Daldakue   | ___ Orkatila   |
| 6. Egiiyesko  | ___ Pareta     |
| 7. Eltzur     | ___ Desegin    |
| 8. Fagai      | ___ Pagadi     |
| 9. Ganbazelei | ___ Laztana    |
| 10. Auskias   | ___ Benetako   |
| 11. Idergi    | ___ Aitzur     |
| 12. Indderzu  | ___ Ganbara    |
| 13. Kalfarra  | ___ Dardara    |
| 14. Loxintxe  | ___ Indartsu   |
| 15. Ankaxkor  | ___ Ile luzea  |
| 16. Nunei     | ___ Maindire   |
| 17. Eskeye    | ___ Hitzontzi  |
| 18. Oosi      | ___ Nonahi     |
| 19. Agozabal  | ___ Aukera     |
| 20. Paatie    | ___ Euskaraz   |



UDAKO BARAZKI  
ETA FRUITUAK

# Udako ARGAZKI LEHIAKETA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

1. Saria

Bergarako Lamaño Etxeberri Landetxean 2 gau bi lagunentzat (irailetik urtea bukatu arte disfrutatzeko) eta argazki irabazlea aluminiozko marko handi batean inprimatzea, Meraki N.S. argazkilaritzaren eskutik.

2. Saria

Lakuntzako Tximonena jatetxean bi lagunentzako otordua (irailetik urtea bukatu arteko epea) eta Halcon Viajesen eskutik 50€ko opari txartela (2 urteko iraupena).



LAMAÑO  
ETXEBERRI  
LANDETXEA



Meraki N.S.  
fotografia profesionala

TXIMONENA  
LABORATORIOA

Halcon Viajes



guaixe



# Udako ARGAZKI LEHIAKETA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

1. Saria

Bergarako Lamaño Etxeberri Landetxean 2 gau bi lagunentzat (irailetik urtea bukatu arte disfrutatzeko) eta argazki irabazlea aluminiozko marko handi batean inprimatzea, Meraki N.S. argazkilaritzaren eskutik.

2. Saria

Lakuntzako Tximonena jatetxean bi lagunentzako otordua (irailetik urtea bukatu arteko epea) eta Halcon Viajesen eskutik 50€ko opari txartela (2 urteko iraupena).



LAMAÑO  
ETXEBERRI  
LANDETXEA



Meraki N.S.  
fotografia profesionala

TXIMONENA  
LABORATORIOA

Halcon Viajes



guaixe



Denbora-pasen erantzunak abuztuaren 30ean izanen dira GUAIXE.EUS-en

# Ergoiena, paseatzeko abiapuntu egokia

Lizarraga, Dorrao eta Unanuk paseoak egiteko aukera ugari eskaintzen dituzte. Hiru herriak izan daitezke horretarako abiapuntu. Ergoendarrak beraiek izan dira hainbat maila eta distantziatako paseo proposamenak egin dituztenak



JOSE IGNACIO  
LIZARRAGA ARTOLA  
DORROBARRA

## Alfredo Alvaro Igoa ERGOIENA

Lizarragakoa da Martina Elso Luis, eta aitortu duenez, "ibiltzea asko gustatzen zait, mugitzeko pixka bat. Herrietara joatea gustatzen zait, jendearekin egotea beste herrietan, elkar ikusten badugu. Gustatzen zait beste herrietakoen berri izatea, ea ongi dauden..." Jose Ignacio Lizarraga Artola dorrobarra da, eta jubilatu zenez geroztik paseatzera ateratzen da egunero kasik. Azaldu duenez, "zahartzean beti ateratzen dira osasun arazoak, eta pixka bat zaintzeko. Ni ibiltzen naiz horrela oso ondo. Kilo batzuk kendu ditut eta..." Resu Mendibe Mercero eta Teodora eta Castora Mozo Lizarraga ahizpak, berriz, unenuarrak dira. "Ahal dugun tokiraino" joaten direla azaldu du Resuk. Teodorak argitu duenez, "lehen urrutiraino joaten ginen, Dorraoraino ere bai. Baina orain ez, zahartu gara

eta gertuago gelditzen gara". Unanutik errekaraino edo "Dorraoko aldapatxoraino" joaten direla zehaztu du Castorak, "zelaiago dagoelako, ez dagoelako aldaparik. Eta hemen gehiago ibiltzen gara. Adinaren kontuak dira horiek. Gaztetan noranahi, eta, orain, ahal dugunera. Ez dago besterik".

Urte sasoiaren arabera, dorrobarrak, bidea aldatu egiten du. Neguan, "jaitsi Unanutik Mundiño, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Lizarraga eta Dorraora. Hori egiten dut gehienbat". 18 bat kilometro. Udaberriean, eguraldiak laguntzen badu, "Unanuko bordetatik Goñiko gainetara atera eta handik, menditik, Lizarragako portutik, bidez bide, jaisten naiz herrira". Gainera, onddo garaian ere basoan ematen ditu paseoak.

Elsok Lizarragako frontoitik behera doan bidea hartu eta Do-

rraoko bidegurutze ondoan dagoen ermitan jarrita hartzen du gozatua. "Dorrobarrak oso ongi daukate aulki batzuk jartzeko. Gainera, badakizu zein bista ditugun! Han jarrita gustura egoten naiz". Bakarrik joaten denean bide hori egiten du. Elurra zegoen aurtengo neguko egunetan, ermitan gelditu beharrean, portuan gora joaten zen lagunekin, iturriraino, gero handik herrira jaisteko. Ibilaldiak nola egiten dituzten galdetuta, "Castora hemen baldin badago, gu biak gehienetan elkarrekin ibiltzen gara" azaldu du Teodorak, ahizpa kanpoan bizi baita. Resuk, berriz, bideari bakarrik heltzen dio, "edo, bestela, etxekoren batekin, alabaren batekin". Castorak azaldu duenez, "eguraldi txarrek ez gara ateratzen". Teodorak ziurtatu duenez, "orain ez du garai batean bezala elurrik egiten".

Elsok badaki bidean jendearekin topo eginen duela, "orain, Unanun jende gutxi ikusten dugu. Dorraon badaude andre bakarren batzuk, ateratzen direnak gu bezala paseatzera. Haiekin egoten gara pixka bat". Lizarraga bidean artzainekin edo beste herrietakoekin opatzen da, baina ez du gelditzeko joerarik, "nire bidean segitzeko ohitura dut. Egun ona eman, eta holaxe". Unenuarrek esan dutenez, arratsaldeetan topo egiten dute dorrobarrarekin eta lizarratar ba-



RESU MENDIBE MERCERO  
ETA TEODORA ETA  
CASTORA MOZO  
UNANUARRAK

tzuekin. "Medikuak esaten du hitz egin beharra dagoela, eta, egin, egiten dugu hitza", jakinarazi du Resuk.

## Aukera gehiago

Ergoendarrak beste bideren batzuetan ibiltzen diren galdetuta, Elsok jakinarazi du Lizarragan San Martin ermita dutela, "harantz ere joaten gara batzuetan. Oso polita ere. Baina joera gehiago dugu beste alde honetara joateko. Nolabait alde honetan bizi garen". Teodorak plana proposatu du: "bidetik Dorraora, Dorraotik, dermiotik, horko soroen paretik, beste soro-bide bat dago, eta handik gora Lizarragara joaten da". Unanuko frontoitik aurrera Ondatzerako bidea, "leku

polita da hori" zehaztu dute hiruiek. "San Donatia jende asko igotzen da, Jesus!" esan du Castorak, "egun batean 52 auto kontatu nituen". Gaztetan Etxarrira Utzubar barna nola joaten ziren ere gogoratu dute.

Dorrobarrak, azkenik, esan duenez, "Lizarragako portura igotzen naiz, han bidea hartu eta San Adrian ermitaraino. Lizarraga jaisten naiz, eta etxera buelta". Beste ibilbide proposamen bat ere eman du: "Dorraotik atera eta Aralarko santutegira joatea. Gainera, bidez bide joaten naiz buelta guztian. Lau orduetan Dorraotik sartzen naiz hara". Lizarragako ziurtatu duenez, "nahi duenak hemen bilatu, aukerak badaude ibiltzeko".



MARTINA ELSO LUIS  
LIZARRAGARRA

**Arkueta**  
Zakur Txokoa  
Obedientzia eta jolasa  
www.zakurtxokoa.eus  
Etxarri Aranatz

ARTZAI GAZTA  
IDIAZABAL DENOMINAZIOA

**BERIAIN**  
GAZTA - ARTZAI

Gazta ondua,  
gazta erdi ondua,  
gazta zaharra.

KALEKUA BASERRIA  
UNANU, NAFARROA  
T. 948 460 516  
M. 649 420 365

**ARTZALKO**

948 460 051 · 679 911 457  
info@restaurantearitzalko.com  
Iruñea-Gasteiz errepidea, 42. km-a  
Etxarri-Aranatz

## Rufinoren tresnak

Rufino Untzilla Lakuntzak erakusketa bat osatu du Etxarri Aranazko Iturtzikin 400 artikulurekin baino gehiagorekin. Besteak beste, ehun urteko gari jasotzaile bat dauka. Bisita gidatuak eskaintzen ditu



**Eneida C. M. / Erkuden R. B. ETXARRIA.** Santa Marina, Kontzezio, Lizarragako San Adrian, San Donato, Trinitatea, San Miguel, Putterri, Ganboa handi eta txiki, Hernio, Aitzkorri, Aratz... Rufino Untzilla Lakuntzak Etxarri Aranatz duen txokoa ingurune zoragarri batean dago, mendiz inguratuta. Iturtxiki dermioan kokatu du bere erakusketa. Txikitatik daukan afizioak erakusketa osatzera eramanean du, bizitzan jasotako

tramankulu, tresna, lanabes, makineria eta abarrekin "Hau dena artistiko eta kulturala da. Duela mende bateko ingeniariak dira, eta piezak ikusgarriak dira. Tresna guztien atzetik historia bat dago". Historia eta artea dago jasota Rufinoren erakusketan.

Museo etnografikoa izan zitekeen. Rufinok jaso dituen gauzak nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutakoak dira, gehienbat, baina arkeologia arrastoak daude

ere, besteak beste. "Anaiak eta biok izan dugu betidanik afizioa. Duela urte eta erdi hasi nintzen ipurukoak edo kopetakoak egiten". Etxean idiekin lan egiteko tresna asko zituen, eta horiekin erakusketa egitea pentsatu zuen: uzterina, zatoa, gurditxoak, lepokoak eta abar.

Denborarekin erakusketa handitzen hasi zen, eta lan tresnak biltzen hasi zen Rufino. Irin errota, ereileak edo gari jasotzaile zaharrak daude ikusgai erakusketan. "Makina batzuk falta dira, baina gehienak hemen daude". Erakusketaren altxorretako bat Etxarri Aranazko Harinera San Migueleko irin errota makina da. "1933. urtean proiektua egiten hasi ziren, eta hiru urte eman zituzten sortzen. Lanean 1936. urtean hasi ziren eta 1975. urtera arte aritu ziren". Makinak hausten hasi ziren.

### Bisita

Erakusketaren hasieran "hemen go gurdia eta gurdi erromatarra" dago. Ondoren, ereilea, gari jasotzailea, noria, patata ereilea, irin errotaren makineria guztia, alperra, atoaia, prentsa, bostortza, golda... Erakusketa nekazaritzaren historian erabilitako tresnariaren artean pasatzen da. Rufinok berak erabilpena eta historia kontatzeko aukera dago.

Nekazaritza eta abeltzaintza zonaldeetik "biatarietara" pasatzen da bisitaria. "Erdi puntuko arkua dauka eta gero ateburu bat dauka, leiho bat bere burukoare-



kin, Menhirra, estelak, ostiko harria...". Elementu artistikoe-tatik pasa ondoren, makineria handia dator. "Traktorea eta duela 90 urteko eta Ajuria markako gari jasotzailea".

Gari jasotzaileak istorio bitxia dauka atzetik. Rufinok lehengusuari erosi zion, "Juanito Igoa 'Katxo', arrain saltzaileari" eta berak erosi zion kasualitatez bere emaztearen aitona zenari. "Bederatzi sozio ziren, eta Irurtzunen ondoan dagoen herri batean zeukaten fabrika". 36 urtez bordan egon zen, eta Rufinok guztiz konpondu zuen. "Lan asko dauka".

Nafarroan horrelako sei gari jasotzaile omen daude. "Zaharkituta gelditu dira. Zaharkituak gelditu direnez eta herriak handitzen ari zirenez, makineria sua ematen zioten eta burdina txatarra botatzen zuten". Desagertu dira. "Egurrezkoak dira, eta barruan burni asko dute". Ajuria marka Araiatic zetorren. Gizon

batek Gasteizen lursail handiak zituen, eta Eusko Jaurlaritzak lursail bat erosi zion bertan eraikin bat egiteko, eta gizonak saldu zion baldintza batekin: Ajuria izena mantentzea. "Ajuria Enea hortik dator". Rufinoren erakusketako makina hauen atzetik historia dago. Ikusteko "oso politak" direla dio Rufinok.

### Iringilea

Duela hamasei bat urte Juan Mari Jauregik museo bat egiteko bere makineria eskaini zuen. Etxarri Aranazko Udalak lekurik ez zuela erantzun zuen, eta, orduan, Arbizuko Jesus Mari Mendinue-tak, garaiko alkateak, Arbizuko erroten egiteko aukera proposatu zuen. "Hemen dena desmuntatu, eta Arbizuko pabilioi batera eramanean genuen". Baina errota egiteko plangintza aldatu zuten, eta bertan Olatzea hotela egin zuten. "Hortik atera behar zen, hemen jartzeko baldintzarekin". Arbizuk egindako donazioa da".

Erakusketa arkeologia piezekin amaitzen da, "kultura" deitutako sail batetik pasa ondoren. Bertan liburu zaharrak bildu ditu Rufinok. Arkeologian "oso zaharrak" diren gauzak erakusten ditu.

Rufinoren erakusketa Etxarri Aranatz dago, eta bisiten prezioa borondatea da. Rufino galdera guztiei erantzuteko prest egongo da. Ordu eta erdi eta bi ordu arteko bisita izanen da. Aurretik hitzordua hartu behar da.



Etxarrin uda bizi

# ETXARRI ARANATZ

## GARILA

### Ostirala 30

22:00 Pilota partida profesionalak.

Binakakoa: Bakaikoa - Aretxabaleta / Salaberria - Ladis Galarza. CaixaBank Masterra: Ezkurdia - Imaz / Elezkano II - Mariezkurrena II. Euskalerriri frontoian.

### Larunbata 31

13:00 Ez festak. Txupinazoa eta Txorongo Txaranga. EGAK antolatuta. Gaztetxean.

20:00 Ibilian-ibilian, etxerako bidean Sakana mailako manifestazioa. Sarek antolatuta. Plazan.

## AGORRILA

### Igandea 1

20:00 Ez festak. Aranaz eguna. Kostillada eta Nerepe eta Haritz akustikoan. Gaztetxean.

### Astelehena 2

12:30etik aurrera Ez festak. Kuadrillen egune. Herri apainketa, musika plazan, kuadrillen bazkaria eta Txorongo Txaranga. Gaztetxean.

15:00 Amnistiaren bidetik independentzia eta sozialismorantz. Bazkaria. 15 euro. Tiketak Xapatero tabernan eta Txosnie Okindegian salgai. Plazan.

20:00 Amnistiaren bidetik independentzia eta sozialismorantz. Manifestaziyue. Plazatik.

### Asteartea 3

12:30etik aurrera Ez festak. Hurren egune. Haurrendako jokoak, txalupen jaitxiera eta play backa. Gaztetxean eta plazan.

### Asteazkena 4

13:00etik aurrera Ez festak. Gazte ta jubiletu egune. Poteo musikatua, bazkaria, bingua, Elektrotxufla elektrotzaranga. Gaztetxean.

### Osteguna 5

10:00etatik aurrera Ez festak. Kintuen egune. Txorongo Txaranga, Auzatea, kintuek bazkeye, ginkana. Gaztetxean eta plazan.

### Ostirala 6

12:00etatik aurrera Ez festak. Inutillan egune. Desfilea, bazkeye, Gamelu Flamenko, manifestazioa eta

# UDA SAKANAN AGENDA 23

inutillan entzierrue. Gaztetxean.

### Larunbata 7

09:45 Bisita gidatua: Haritz zaharra Miruaren eskutik. Kanpinean.

### Asteartean 10

17:00 Kalistenia tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Igerilekuan.

### Osteguna 12

21:00 Etxarrin uda bizi: Gozategi taldearen kontzertua. Plazan.

### Osteguna 19

21:00 Etxarrin uda bizi: Beietz taldearen

kontzertua. Plazan.

### Igandea 22

18:30 Etxarrin uda bizi: Xaibor taldearen kontzertua. Plazan.

### Asteartea 24

17:00 Osasuna Fundazioaren 3x3 futbol kanpusa. Plazan.

### Osteguna 26

21:00 Etxarrin uda bizi: Puro Relajo taldearen kontzertua. Plazan.

\*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

**LEKU ONA TABERNA**  
Gosariak 9:30-11:00  
Gauero ogitartekoak eta  
hamaiketakoak igandetik aurrera  
**Etxarri Aranatz 948 461 228**



**DERRY TABERNA**  
SAOR DOIRE  
ETXARRI ARANATZ

Kale Nagusia, 8  
Etxarri-Aranatz

948 461 703

**INOX**  
NAPARRA, S.A.

Arangorrieta industrialdea  
Etxarri Aranatz | 948 46 03 81  
<http://www.inoxnaparra.com>

**Sortu zure energia garbia**

**Etxebizitzetarako instalazio fotoboltaikoak**

Instalazio osoak, estudio, legeztatze, urruneko mantentze, baterientzako aurreinstalazio eta bermearekin.

Aurreztu urtero 360 eta 570€ artean

**4.563 euro**

6 eguzki panel/2700wp

Instalazioak 3.758€-tik hasita (4 plaka).  
Dimentsionamendu indibidualizatuak,  
zure beharretara egokitua.  
Prezio guztiek BEZ-a barne dute.

621 23 36 31

Pol. Ind. Zumurdiñeta 20 - 31820  
Etxarri Aranatz (Nafarroa)  
T. 948 46 11 35  
[www.eseki.com](http://www.eseki.com)



**Igoa**  
orraideglo

948 460 111 -  
Arkuetabide kalea - Etxarri Aranatz

**iraizze**  
bokatak

948 117 810  
ETXARRI ARANATZ

Pintxoak  
eta bokatak

**IRATXO**  
TABERNA

ETXARRI  
ARANATZ

682 90 02 98

**MARINELETXE**  
HARATEGIA

948 46 19 80  
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6  
Etxarri Aranatz

**xapatero**  
taberna

Etxeko krocketak  
eta bokatak

948 460 162 - Etxarri Aranatz

# Angoiko, Anbeiko eta erdialdeko iturrien historia

Gaur egun Bakaikun dauden hiru iturriak XIX. mendean egin zirela azaldu du Jesus Ondarra Erdozia bakaikuarrak. Orduko dokumentazioa aztertuta, iturriak zergatik eta nola egin ziren eta betetzen zuten funtzio garrantzitsuaz aritu da

**Eneida C. M. / Maider B. G. BAKAIKU**  
Iturriek historia polita dute atzean, eta horren bila jo dugu Bakaikura. Herriko iturriak, askak eta garbitokiak ongi konterbatu dituzte. Gaur egun, hiru iturri daude: goiko iturria, erdiko iturria eta beheko iturria. "Goikoak Angoiko iturria du izena, auzoa Angoia delako. Izan ere, Bakaikun Angoia eta Anbeia auzoak ditugu. Horregatik, beheko iturriak Anbeiko iturria du izena" dio Jesus Ondarra Erdozia bakaikuarrak.

Gaur egungo 3 iturriak XIX. mendekoak dira. Angoiko iturria eta Anbeiko iturria mende erdialdekoak dira, eta erdialdeko iturria, hau da, bideberri ondoan dagoena, mende bukaerakoa. Iturriak politikak dira, baina euren helburu nagusia ez zen apaingarriak izatea, ur beharra asetzea baizik. Izan ere, garai haietan etxeetan ez zegoen urrik. "Jendearendako ura behar zen, ur txorrotak; arropa garbitzeko eta harrikoa egiteko ura behar zen, garbitokia; eta baita ganadua-rendako ere, askak. Angoiko iturriak hiru funtzio hauek betetzen ditu. Orduko proiektuan horrela agertzen da, dena egin

behar zela, iturria, garbitokia eta aska" esplikatu du Ondarrak.

## 18.100 erreal kuarto

Iturri zaharrena Anbeiko iturria da, 1851koa. Angoikoa urte bat gazteagoa da, 1852koa. Bi iturriek bere iturri propioa dute, ez daude ur sareari lotura. "Egin zirenean ez zegoen ur sarerik. Anbeiko iturriak bertan zuen iturria edo ura, iturri lekua baita. Aldiz, Angoiko iturria egiteko ura basotik ekarri behar izan zuten, Olaskoiturri izeneko iturritik. Han bi iturburu zeuden, eta biak hartu zituzten, herrira ekarri, eta Angoiko iturria egin zuten. 18.100 "reales de vellón" edo erreal kuarto, hori izan zen, guztira, iturria egiteak izan zuten aurrekontua. Lan guztiaren zenbatekoa zen hori: goian iturriak hartu, herrira ekarri eta iturri guztia egitea, hau da, txorrotak, aska eta garbitokia. Iturria nork egin zuen ez dut aurkitu" azaldu du Ondarrak. Aldiz, badaki nork egin zuen Anbeiko iturria. "Proiektua eta aurrekontua Gasteizko Sagasibar arkitektoak egin zuen, eta lanak Idiazabalgo Aseginolazak" gaineratu du.

## Garbitokiko ur zikina

Angoiko iturria da hiruretan handiena eta osoena. Ur txorrotak, aska eta garbitokia ditu. 1852 urtean eraiki zen, eta 1996an zaharberritu zuten. "Kalea urbanizatu zutenean iturria aldatu zuten. Lehen iturriak atzetik etxetxo bezalako bat zuen, ura hartzeko biltegi moduko bat. Urbanizatu zutenean desagertu zen. Aska ere aldatuta dago. Duen teilatu hori lehen ez zeukan. Baina gainontzeko guztia lehen bezala dago" gogoratu du Jesus Ondarrak. Uraren garbitasuna da beste aldaketa nagusia. "Orain ura garbia dago, baina lehen, hainbeste harriko egiten zirenez, ura zikin-zikina egoten zen. Gogoan dut noizbehinka garbitokia hustu egiten zela, garbitzeko, eta ura zikina ateratzen zen, kolore batekin... eta zer nolako usainak ateratzen ziren garbitzen zutenean! Pentsa garai bateko higie-ne kontuak nolakoak ziren" dio Ondarrak.

Garbitokietan emakumeak biltzen ziren bereziki, eta arropak garbitzen zituzten bitartean kontu kontari aritzen ziren. "Haurrak inguruan ibiltzen ginen mutxikan, jolasean, baina



gure kontu. Orduan handik hona ibiltzen ginen kalean. Ez zen gaur egun bezala, gurasoak haurren gainean daudela. Gaur egungo haurrak oso babestuta daude" aipatu du. Bestalde, ganaduak askan edaten zuen ura. "Ganadua etxetik laskatu egiten zen, eta iturrira eramaten zen ura edatera" gogoratzen du.

Anbeiko iturria egin baino lehen, beste iturri bat omen zegoen bertan, iturria eta garbitokia zituena. "Anbeiko iturria egiteko arrazoien artean, orduko dokumentuan aipatzen da, gaztelera, "la fuente y el lavadero está fuera de usoporque el agua..." Urak, nonbait, bidea galdu zuen, eta iturrira etorri beharrean putzu batera joaten zen. Horregatik egin zen iturri berria. Baina lehenagotik bazegoen. Ustedut XVI. mendean aipatzen dela han zegoela "la fuente del lugar". Ez dakigu nolako izango zen, baina iturria zegoela, bai" dio. Angoian ere beste iturriren bat egongo zelakoan dago Jesus. "Angoiko txoko batean, gaur egun

ere ur zirrista bat etortzen da. Ez da lehortzen, eta hor iturriren bat egongo ote zen datorkit burura. Dokumentuan esaten da bere garaian "la fuente de la Otxoa" delako iturria zegoela Bakaikun eta ganadua-rendako aska zuela, baina ez du esaten non zegoen. Agian Angoian egon zitekeen, hipotesi bat izan daiteke" gaineratzen du.

## Bitzikeria gisa

Angoiko iturritik Anbeiko iturrira joateko bidea, garai bateko Lizarratik zetorren bidetik egin daiteke, gaur egun berri-tuta dagoena. Bidearen erdi aldean, Bakaikuko etxerik zaharrena izango denaren ondotik, garai bateko ostatuaren ondotik pasatzeko aukera dago. Garai hartako bideak bi altuera omen zituen, bata oinezkoendako eta bestea, ondoan, gurdiendako. Anbeiko iturrian bertan Gipuzkoarako bidea zein zen ikus daiteke, eta baita Iruñetik zetorrena ere, bidegurutzeta bertan baitago.





Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI

Nicolas Arbizu Gabirondo Iturmendiko historia eta ohituren ikerlaria da. Parrokiako liburuak errebisatzen ari zela "Sebastian Fernandez de Lezetaren eta 104 soldaduren heriotza-agiria opatzeak harritu ninduen. Han jartzen duenez, hurrengo egunean udalak, auzolanean edo, basoan lurperatu zituen". 1985 urtea izan zen. Rafael Carasatorre Vidaurre historialari etxarriarra ibarreko despopulatuak eta toponimia ikeretzen ari zen, eta Arbizuri Dospeloserrekalde toponimoaz galdetu zion. "Heriotza agirirena azaldu eta esan zidan koronel arabar bat zela".

Arbizuk Erregengurutza edo erregurutza toponimoa entzuna zion aitari. "Niretako erregeren gurutza da. Pertsonaia garrantzitsu bat hiltzen denean, errege deitzen diote. Aitak zioen han errege bat hil zutela. Koronela zen. Garai haietan garrantzitsua zen". Arbizuri iturmendiarrak baieztatu diote Erregengurutzararen garai batean pago batean burnizko gurutze bat zegoela.

Arbizuk ustezko gertaera tokira eraman zuen Carasatorre. "Hark metal detektagailua eraman zuen eta berunezko bala pila opatu zituen". Arbizuk gerora "fusil baten perkusio harria, silex txiki bat" opatu zuen.

Bernoako galtzada berreskuratze prozesua hastean piztu zen berriro fusilatutakoak opatzeko nahia, "bideari balio handiago emateko", adierazi du Arbizuk. Bitoriano Gabirondo Lanz alkate izan da aurreko bi legegintzaldietan eta azaldu duenez, "duela sei edo zazpi urte Aranzadiko kideak etorri ziren, Pako Etxeberria buru". Egun



MUNTAIA

## Non ote daude 21.630 giza hezur?

Bernoako galtzadak bere ibilbidearen baitan misterio ugari gordetzen ditu. Argitu gabekoen artean dago Sebastian Fernandez de Lezeta koronela eta bere 104 soldatuak 1822ko lastailean fusilatu ondoren haien gorpuei non eman zieten lur

osoa egon ziren. Erregengurutza ondoan dago Dospeloserrekalden. "Lagin zuloak gehienbat harantz egin genituen, erreka aldera". Georradarrarekin ibili ziren, "baina basoan badakizu, sasia, zainak... ez genuen ezer opatu. Aurreko legegintzaldian, bi hiru urtetan, hiru saiakera egin genituen. Pala batekin han eta hemen lagin zuloak egin genituen, baina alferrik".

Arbizuk azaldu duenez, "gero konturatzen zara oso zaila dela opatzea. Nola lurperatzen dituzu basoan hainbeste gorpu guztia

zaina edo harria denean? Leze edo zuloren batean hobiratu zitaketen. Gurdiekin beste norabait lekualdatu ditzakezu".

Iturmendiarrak garbi du: "ez zituzten herrira ekarri, normalean hildako tokian ematen zieten lur. Elizetan ehortzen zenean, familiaren hobiak ziren. Hilerririk ez zegoen hilerririk. Lehengoa, kanposantu zaharra, 1855eko da". Ikerlariak gaineratu duenez, "Fernando Zabalararen armada ahaltsua zen, agian 700-800 soldadu. Uste dut armadaren

atzeko aldean zihoazela presoak. Galtzadan beharbada armadak kilometroko luzera hartzen zuen! Agian gutxien espero dugun tokian daude lurperatuta, Mandabita aldera edo. Gerra erregezailearen galtzaileak ziren eta, horregatik, ez zieten kasu handirik eginen".

### Zein zen Dospelos?

Sebastian Fernandez de Lezeta Uribarri Haranan (Araba) 1770ean jaio zen. Francisco Espoz Ilundainen konfiantza osoa izan zuen Napoleonen aurkako gerran, eta

Arabako borondatezko soldaduen lehen gudarostea eratu zuen. 1809 eta 1814. urteen artean jardun zuen gerrilla borrokan. Gerra bukatzean, Espainiako armadan koronel kargua lortu zuen. Arabarrak ideologia liberala zuen. Kadizko konstituzioa ezarri eta 1820 eta 1823 artean hiru urteko liberala izan zen. Konstituzioaren kontrako eta Fernando VII.aren aldeko errege zaleek armak hartu zituzten.

Dos Pelosen tropak hainbat erregezale hil zituen Lizarraldean eta heriotza haiek mendekatu nahi izan zituzten errege-zaleek. Aurrez aurreko baten ondoren Deikaztelun atxilotu zuten Dospelos eta bere tropa. Zabalararen zutabeak Etxarri Aranatzera jo zuen. "Deikaztelutik Etxarrira egun bakarrean. 40 km pasa! Eta haien atzetik konstituzio zaleen armada. Etxarriren enfrentamendua izan zuten. Ordurako presoetako batzuk galdu zituzten. Han galtzada hartu zuten".

Ibarbeltz gogainako zelaian (Erregengurutza gaur egun) gelditu ziren. Dospelos eta bere 125 soldadu presoak neka-neka egin da zeuden. "Bernora igo aurretik esan zuten: armada atzetik dugu, gurekin 120 preso daramatzagu..." Zabalak haiek fusilatzeke agindua eman zuen. 105 izan ziren hildakoak. Gainontzekoek, fusilak bigarrenez kargatu bitartean ihes egin zuten, zauriekin edo ez. Etxarrira joan, eta gertatutakoaren berri eman zuten.

Azkenik, Arbizuren deia: "Iturmendin bakarren batek daturen bat badu, ongi etorria izan da. Batzuetan gauzarik tontoenek, topatu diren harri berezi horiek, etxean entzundako zerbaitekin... informazio handia ematen dute".

  
HORTZ KLINIKA  
**Etxarri**  
Eguerdietan zabalik  
948 460 315  
Kale Nagusia 27  
Etxarri Aranatz

**BiLTOKi**  
TABERNA • JATETXEA  
Eguneko  
menua 11 €  
Menu  
berezia 15 €  
Telefono berria:  
948 562 348 • Altsasu

  
CONHERSA  
LUR OROTAKO  
TRANSPALETEN  
FABRIKATZAILEA  
Ibarrea industrialdea, Altsasu  
948 467 951 | www.conhersa.com

  
GANUZA  
ANAIK  
  
948 460 203  
Faxa: 948 460 673  
Zumurdiñeta industrialdea  
Etxarri Aranatz  
www.cocinasganuza.com

# Urdiaingo igerilekuak, zerura begira

Urdiaindarrek Aitziber igerilekuetan pasatzen dituzte udako arratsalde beroak. Aurten Beñat Zelaia, Tasio Merchan, Jokin Bereziartu eta Asier Arrizabalaga altsasuarrak ari dira igerilekuak kudeatzen, gazteek udan lan egiteko ohiko aukeretako bat denean



**Eneida C. / Mainer B. URDIAIN**

Aitziber elkartearenak dira Urdiaingo izen bereko igerilekuak. Paraje ikusgarrian daude, Urriztin, eta San Pedro eta Intxusburutik gertu, toki apartan. Igerilekuen kudeaketa emateko enkantea deitzen du urtero Aitziber elkarteak, "baina juntako kide batek aipatu zigun inor ez zela enkantera aurkeztu, eta jende bila zebiltzala. Guri igerilekuen kudeaketa eskaini zigun, eta, gehiegi pentsatu gabe, baiezkoa erantzun genion" azaldu dute Beñat Zelaia eta Tasio Merchanek, irribarrez. Haiekin batera, Jokin Bereziartu eta Asier Arrizabalagak kudeatzen dituz-

te igerilekuak. Lauretatik hiru ikasleak dira, eta bestea langabe zegoen. "Laurak ari ginen udako lana bilatzen, soldataren bat ateratzeko, eta animatu ginen" gaineratu dute.

## Erroka ederra

Udan ikasleendako eta gazteen-dako lan egokiak izaten dira ostalaritzari eta aisialdiari lotutakoak, baina aurten, COVID19aren kontuarekin ostalaritza ez dago bere unerik gozoenean. "Ez dago festarik, udan sortzen zen giro berezi hori ere ez da berbera, eta ostalaritzan ez dago aukera handirik. Panorama ez da erraza" diote lau gazteek. Horre-

gatik, ilusioz hartu dute Urdiaingo igerilekuen kudeaketa. "Lanaz aparte, guretzat erroka bat bezalakoa da" nabarmendu dute.

Urdiaingo igerilekuetako taberna ekainaren 25ean ireki zuten, eta abuztu bukaerara arte ariko dira lanean. "Gure ardura da igerilekuak kudeatzea: sarreak kobratzea, taberna kudeatzea, eta igerilekuetako instalazioak garbitzea: aldagelak eta igerilekuak garbitu, araztegia pasa, eta mantenu lanak egin. Egunero egin behar ditugu garbiketako lanak, eta esan beharra dago igerilekuetako sorosleek sarritan laguntzen ditugela" azaldu dute. Sorosleak elkarteak kontratatzen ditu.

Igerilekuen sarreragatik ordaindutakoa Aitziber elkartearendako da. "Prezioak Aitziber elkarteak jartzen ditu. Igerilekuetan, elkarteak sarreren salmentatik eta enkantetik ateratzen du dirua, baina guk enkantean parte hartu ez dugunez, ez dugu dirurik jarri. Guk ateratzen duguna tabernako kudeaketatik ateratzen dugu" zehaztu dute.

Aurreko urteetan egindako lana hartu dute erreferentziatzat. "Igerilekuak hartzeko proposamena egin zigun juntako kideak ere aurretik igerilekuak hartu izan ditu, eta berak asko lagundu digu. Afari batera gonbidatu beharko dugu (kar, kar...)" diote. Asteburuetan laurak egoten dira lanean, lan dezente egoten delako, eta astean zehar txandak egiten dituzte: bi goizetan eta beste biak arratsaldeetan egoten dira. Baina eguraldiak baldintzatzen du guztia. "Eguraldi ona badugu lan dezente dugu, eta txarra badago, beste lan batzuk egiteko aprobetxatzen dugu: pizak aurreratu, eskalopeak egin eta sukaldearen atzean dagoen lan hori guztia" gaineratu dute.

## Sukaldea, apustua

Sukaldeari arreta berezia jarri diote. "Sukaldea da gure apusturik sendoena. Bazkari eta afari onak ematea erabaki dugu, ez daitezela eskasak izan. Sukaldek dirua ateratzea, finean. Egunero, eguerdian eta arratsaldean, karta eskaintzen dugu: plater konbinatuak, katxopoa, arrazioak, bokatak... Eta, asteburuetan, larunbatean eta igandean, bazkaltzeko orduan menua eskaintzen dugu" diote. Estalpean, eta terrazetan egiten dira otorduak.

Momentuz laurak moldatzen dira. "Egunen bat nahiko gogorra izan dugu, jende asko aldi berean

zegoelako, baina jendeak ulertzen du eta lana aurrera atera dugu. Gainera, esan digute oso ongi ematen dugula, jendea oso pozik dagoela, eta, jakina, gu ere bai" nabarmendu dute. Beste eskaintza berezi bat dute. "Ostegunetan kuboak eskaintzen dugu. Kuboan 5 garagardo sartzen ditugu, 7,50 euroan, eta harrera ona du. Ostegunetan jendea etortzen da, giroa sortzen da, eta afariak ematen dira" gaineratu dute. Kontzertuak eta emanaldiak antolatzeko asmoa dute. "Tasiok talde berri bat du, eta orain modan daudenez, ekarri beharko ditugu" diote, irribarrez.

Urdiaindarrek dira igerilekuetako bezero nagusiak, baina laurak altsasuarrak izanik, Altsasuko jende asko gerturatzen zaie. "Lagunak, familia eta ezagunen artean bakarrik... asko datoz. Gainera, katxopoen kontu horrekin arreta deitu dugu, eta katxopoa probatu nahi dutela esanez datorkigu jendea" aipatu dute. Asteburuetan jende gehiago egoten da, asko Gipuzkoatik, bereziki Goieritik etorritakoak.

## Paradisuan

Urdiaingo igerilekuak Urriztin daude, paraje ikusgarrian, eta hori alde du laukoteak. "Leku zoragarria da: Intxusburu ondoan, bi harri puska eder ditugu parean eta mendi berde eder polit bat. Igerilekuan zaudela halako haitzak, mendia eta paisaia ikustea ikusgarria da. Gu altsasuarrak gara, baina aitortu beharra dago Altsasuko igerilekuek Urdiaingoan ondoan ez dutela ezer egiterik. Bero handia egiten duenean oso gustura egoten da; hemen Altsasun baino 3 gradu gutxiago daude beti eta itzaleko guneak daude".

**HARATEGIA**  
Lopez de Epikoetxea  
**CARNICERIA**  
Uda ona pasa!

ETXEAN HAZITAKO TXEKOR HARAGIA  
ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

Deitu 948 562 157 | 617 766 536 edo

**COMERCIAL ETXARRI**  
altzariak - muelles

Eraberritu zure espazioa

Beasaingo Errepidea (Etxarri Aranatz)  
948 460 021 | www.comercialetxarri.com

# "Urtebetean zenbat gauza egiteko gai izan naizen ikusten dudanean..."

## NAGORE GONZALEZ CLAVER

BARRANKA TXIRRINDULARI TALDEKO BIKERRA

Barrankako kide gazteena da Nagore. Duela urte bat pasa hasi zen taldean, eta astebururo BTT talde mistoak antolatutako irteeretan parte hartzen du

### Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Barranka Txirrindularitza Taldeak ibilbide luzea du. 90. hamarkadan izan ziren bere has-tapenak, Burunda klubeko mendi txirrindularitza edo BTT sekzio gisa, baina 2015etik aurrera Barranka Txirrindularitza Taldea sortu zuten Burundako BTT sekzioko kideek eta zikloturistek. Taldekide gehienak beteranoak dira, baina duela gutxi 15 urteko Nagore Gonzalez Claver gaztea batu zaie.

### Nola animatu zinen Barrankan izena ematera?

Aita Barrankako kidea da, eta berak animatu ninduen probatzera. Behin Barranka talde mistokoekin atera nintzen; gustatu zitzaidan, eta orain larunbatero BTT irteeratarata joaten naiz eta oso pozik nago.

### Larunbatero egiten dituzue BTT irteerak, ezta?

Barrankaren barruan 3 talde daude: Barranka errepideko taldea, Barranka BTT taldea (hasierakoa), eta Barranka BTT talde mistoa. Ni talde mistoan nago: emakumeak eta gizonezkoak batera aritzen gara, eta 60 kilometroren bueltako irteerak egin ditzakegu, baina erritmo lasaiagoan. Beste martxa batean ibiltzen gara, eta larunbat goizetan egiten ditugu irteerak. Hasierako BTT taldean, aldiz, beteranoak daude, asko ibiltzen direnak. Ibilbide luzeagoak eta gogorragoak egiten dituzte. Aita bertan aritzen da, eta igandeetan egiten dituzte irteerak.

### Barranka BTT talde mistoan, zenbat kide biltzen zarete irteerak egiteko?

Egunaren arabera: batzuetan 8 kide, beste batzuetan 10...

### Taldeko gazteena zara.

Bai. Gainontzeko kideak helduak dira. Gehienek seme-alabak di-



tuzte. Esan beharra dut Barrankan taldekideek oso ongi hartu nautela.

### Barrankan hasi aurretik, bizikletan ibiltzen zinen?

Txikitatik kirola egitea gustuko dut, baina ez nintzen bereziki bizikletan ibiltzen. Gogoan dut 2019ko martxoan, konfinatu baino egun bat lehenago, aita eta biok bizikletarekin buelta bat ematera joan ginela, azken egun hori aprobetxatzeko. Kilometro dezente egin nituen lehenengo eguna izan zen: 30 kilometro inguru izan ziren, eta hori niretako asko zen. Oso ongi sentitu nintzen. Eta orain 30 kilometro egitea gutxi da (kar, kar...).

### BTT irteera hauetan Sakanako txoko asko ezagutuko dituzue. Nondik ibiltzen zarete?

Batzuetan, Urbasako portua igo, eta buelta bat ematen dugu bertan, edo Agurain aldera goaz, edo Lizarrustira, edo Lizarragara joan, portua igo, eta handik Urbasara goaz. Egunaren arabera.

### Zein txoko da politena zuretzat?

Urbasa dut gustukoen, bere osotasunean. Leku oso lasaia da, erlaxatua, eta ez dago jenderik. Natura bete betean.

### Aralar aldean ibili al zara?

Bizikletan ez naiz inoiz joan. Esaten dute oso gogorra dela, eta errespetu handia diot. Aitak dio San Miguel lehen aldiz igo zue-nean oso gogorra egin zitzaiola. Berarendako gogorra izan bazen, niretako gogorragoa izango da.

### San Migel igo beharrean, bizikletak autoz Aralarrera igo eta han bueltatxoa eman dezakezue. Izan ere, Barranka Taldeak furgonetak ditu halako irteerak egiteko, ezta?

Bai, bi furgoneta ditu taldeak. Joan den urteko udan Aguraineraino joan ginen furgonetan, han bizikletak hartu eta Garaiko urtegiara joateko. Gehiegi litzateke Altsasutik abiatuta ibilbide hori guztia egitea. Uztailearen 16tik 18ra taldekideak Llanesera joan ziren. Ibilbide horiek oso politak dira, baina oraindik ez zait egokitu Aralarrera joatea.

### Donejakueko bide zaharra, Sakanatik pasatzen zena, berreskuratu dute, bizikletan edo oinez egiteko bide gisa, eta Barrankakoak ere ibili izan zarete Irurtzundik Ziordira bitarteko bide hori egiten.

Niri ez zait tokatu, baina nire taldekide batzuek Donejakueko Sakanako buelta guztia egin izan dute. Hanka sendoak izan behar dira, baina noizbait egin nahi nuke, Sakana puntatik puntara ezagutzeko.

### Pirinioetan egona zara?

Joan nahi dut, baina oraindik ez naiz egon. Tourmalet probatu nahiko nuke, baina urte batzuk itxaron beharko dut, hankak horretara egiteko, Tourreko etapan ikusi nuenean pixka bat izutu bainintzen; 3.000 metro baino gehiagoko desnibela du (kar, kar...).

### Teknologia berriei esker, egiten dituzuen ibilbideak neurtzen dituzue. Zein programa erabiltzen duzu?

Strava, Relieve eta Wikiloc erabiltzen ditut, Strava bereziki, gustukoena dudalako. Mapa batean egin duzun ibilbidea marikatzen dizu, zein batez besteko egin duzun, egindako kilometroak, pilotutako desnibela, orduko batez besteko abiadura... Wikiloc dauden ibilbideak kontsultatzeko erabiltzen dut gehienbat.

### Zer esaten dizute zure kuadrillakoek? Ez dira zurekin aritzera animatzen?

Erotuta nagoela (kar, kar...). Uste dut beraiek ez zutela espero ni horrenbeste ibiliko nintzenik. Ez dira nirekin aritzera animatzen, bizikleta ez dutelako oso gustuko.

### Animatuko zenituzke gazteak kirol honetan aritzera eta Barranka taldeko kide egitera?

Bai. Tokiak ezagutzeko beste modu bat da mendi txirrindularitza. Kirola egiten duzu, ez duzu kutsatzen, jende asko ezagutzen duzu, toki asko... Nik joan den urtean igo nuen lehenengo Urbasako portua. Atzera begiratu, eta urtebetean zenbat gauza egiteko gai izan naizen ikusten dudanean...



Altsasuko Dendarien Elkarte  
Asociación de Comerciantes de Alsasua



tú das vida a las calles  
zurekin kaleak bizirik  
COMERCIOS DE NAVARRA, NAFARROAKO DENDAK

Nafar Gobernuak  
diruz lagundutako ekimena

CARNICERÍA SORKUNDE, KATUKA, LIBURUNDA LIBRERÍA-PAPELERIA, ALLIANZ SEGUROS, PINPILINPAUXA, JOSELEN MODA, GAUTXORI TABERNA, TXIKITXO, TU TIENDA ESPECIAL, ASENSIO MODA, XAGU INFORMATIKA, IKER KIROLAK, ML MODA HOMBRE, ML MODA MUJER, TXARTEL KOPIA, FLORISTERÍA Y HERBORISTERÍA LOREA, LASA KIROLAK, MARIGORRI, DEPORTES LEZEA, ARKATZ LIBURUDENDA, LARKA EMAKUMEA ETA GIZONA, MUEBLES SANTA CRUZ, CAFETERÍA CAFÉS AKEITA, INMOBILIARIA AGURAIN, ELECTRICIDAD RAMOS, IULENE DENDA, MARI CARMEN, IZARA - CORTINA STOR, ELECTRODOMÉSTICOS RAMOS, ELECTRICIDAD GERTU SAKANA, CALZADOS BENGOTXEA, OPTIKA SAKANA, CALZADOS SARE, FRUTERÍA CRISTINA - JANARI DENDA, EGIN MODA, 13 UDABERRI LOREDENDA, ARKUPE KOLTZOI DENDA - ALTZARIAK

# 28 UDA SAKANAN AGENDA

## BAKAIKU

AGORRILA

### Igandea 1

19:30 Trikidantz taldearen kontzertua.  
Eskolen parkea.

## ITURMENDI

AGORRILA

### Ostirala 20

18:00 Emakume langileon eskolak: Genero problematikaz hausnartzen. Sakanako Itaiak antolatuta. Frontoian.

## URDIAIN

AGORRILA

### Osteguna 5

18:00 Emakume langileon eskolak: Gaur egungo jai eredu, harremanak eta hipersexualizazioa. Sakanako Itaiak antolatuta. Gaztetxean.

## ALTSASU

GARILA

### Larunbata 31

20:00 La banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua. Iortia zabalgunean.

AGORRILA

### Igandea 1

08:00 Urbasako Dulantz, Larregoiko eta Zanabe Urbasako gailurretara ibilbidea. Altsasuko Mendigoizaleak. Egoitzatik.

20:00 Euskal presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

### Astelehena 2

12:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Zumalakarregi plazan.

### Ostirala 6

20:00 La Tribu Obembe taldearen kontzertua. Iortia zabalgunean.

### Igandea 8

20:00 Euskal presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

### Astelehena 9

12:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Udaletxearen aurrean.

### Ostirala 13

20:00 Hutsun txalaparta taldearen eta Ortzi artistaren Urbasa ikuskizuna. Iortia zabalgunean.

### Larunbata 14

10:00 II. Voley Playa txapelketa. Kopuru mugatua: hiru edo lau taldekide talde bakoitzean. 12 euro taldea. Izena ematea: volleyplayaaltsasu@gmail.com. AGAk antolatuta. 15:00 Bazkaria. Foru plazan.

### Igandea 15

20:00 Euskal presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

### Astelehena 16

12:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Zumalakarregi plazan.

### Ostirala 20

20:00 Txorongo Txarangaren emanaldia. Iortia zabalgunean.

### Igandea 22

20:00 Euskal presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

### Astelehena 23

12:00 Pentsio duinen aldeko

elkarretaratzea.

Udaletxearen aurrean.

### Ostirala 27

20:00 Atzapar Rock taldearen kontzertua. Iortia zabalgunean

### Igandea 29

20:00 Euskal presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

### Astelehena 30

12:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Zumalakarregi plazan.

\*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

## BIDELAGUN

SAKANAKO TURISMO ELKARTEA  
ASOCIACIÓN TURÍSTICA DE SAKANA

Sartu  
[www.sakana.eus](http://www.sakana.eus)

ETA GURE ESKAINTZA ZABALA IKUSIKU DUZU,  
EGUN BATZUK PASATZEKO  
GURE INGURIAN DAGOENA EZAGUTZEN

**alzanía**  
curvados alzanía s.l.

Kurbatuak,  
galdaragintza fina  
eta arotzeria metalikoa

[www.curvadosalzanía.com](http://www.curvadosalzanía.com)  
[info@curvadosalzanía.com](mailto:info@curvadosalzanía.com)  
948 467 773  
697 874 987 · 697 875 909  
Isasia industriagunea.  
2 nabea · Altsasu

**Halcón VIAJES**

EGIN EZAZU  
ERRESERBA

LAZKEN  
ORDUKO  
ESKAINTZAK

948 04 10 02  
San Juan kalea, 52 | Altsasu  
[halcont60@halcon-viajes.es](mailto:halcont60@halcon-viajes.es)

**lorea**  
lore eta belardenda

948 46 74 26 San Juan 52  
685 72 21 12 31800 Altsasu  
[www.floristerialorea.net](http://www.floristerialorea.net)

f t w

LIDIA  
MARTÍNEZ  
AKADEMIA

MATEMATIKA  
FISIKA  
KIMIKA  
GAZTELANIA... MAILA  
GUZTIAK

BAKEA 1 · ALTSASU  
626 084 133  
[www.lidiamartinez.es](http://www.lidiamartinez.es)

**Meraki N.S**  
Argazkilaritza profesionala

650 265 001 Altsasu  
[info@merakinsfoto.com](mailto:info@merakinsfoto.com)



ZURE ENPRESAK FUNTZIONA DEZAN BEHAR DUZUN GUZTIA



Electricidad Ramos y cia.-S.L. | Ondarria industrialdea z/g · Altsasu · 948 564 825

[www.electricidadramos.com](http://www.electricidadramos.com) | [www.ramos.es](http://www.ramos.es)



# Urratarrak, motorraren genearen indarra

Fernando Urrea Lopezen eta bere iloba Eukene Urrea Herreroren bizitza dira motorrak. Motokros, enduro eta cross countryan aritzen dira

**Maidar Betelu Ganboa** OLATZAGUTIA  
Aspaldiko ezaguna da Fernando Urrea Lopez olaztiarra. Motorzale amorratua, bere hasieratan motokrosa eta enduroa kartingarekin partekatzen zituen. 2014 urtetik aurrera supermotardean hasi zen, eta hirutan Espainiako txapelduna izan zen, master mailan, 2016an, 2017an eta 2019an. "Iaz sorbaldan ebakuntza egin behar izan zidaten, eta duela gutxi hasi naiz motokrosean eta enduroan. Eta, jakina, Eukenerekin batera entrenatzen nabil" aipatu du Fernandok, bere iloba Eukene Urrea Herrerori begiratzen dion bitartean.

Eukenek 16 urte ditu eta osabaren kuttuna dela agerikoa da. Harreman berezia dute. "Osaba beti bajaran sartuta dago, motorekin lanean, eta txikitatik berarengana joaten nintzen. 11 urte nituela, motorrak gustuko nituela konturatu nintzen, eta aitari motor bat eskatu nion. Ezetxerantzun zidan. Baina osabak tentatzen ninduen, eta behin izebaren motor bat utzi zidan, krosoko motor txiki bat, eta motorean ibiltzen irakatsi zidan. Hasieran aitak ez zuen gustuko, eta amak oraindik gutxiago, baina uda horretan, 12 urte nituela, gurasoek nire lehendabiziko motorra erosi zidaten, motokrosoko 85 zilindroko motorra. Nire zaletasunaren aurrean jada ez zegoela ezer egiterik pentsatuko zuten" dio irribarrez Eukenek.

Fernandok Olaztiko soro batean zirkuitu bat prestatua zuen. "Supermotardean Espainiako Txapelketan lehiatzen nintzenean asko entrenatu beharra nuen, eta soroko zirkuituan ibiltzen nintzen. Eukene nirekin etortzen zen, eta bera bere kabuz ibiltzen zen zirkuituan" gaineratu du

Fernandok. Eukene pixka bat trebatu zenean, beste zirkuitu batzuetara joaten hasi ziren, entrenatzera. "Niretzako hobya da. Asteburua iristeko irrikaz nago beti, osaba Fernandorekin motorean ibiltzera joateko" dio Eukenek. "Eta ni oso pozik. Zer esango dizut" erantzuten du osabak. Katalunian, motorraren sehaskan, egonak daude biak. "Alcarrasen egon ginen behin. Hemen apenas dago zirkuiturik, eta alde horretatik Katalunia paradisua da" azaldu du Eukenek.

**Eukeneren lehen lasterketa**  
Eukenek 14 urterekin hartu zuen parte bere lehen lasterketan, duela 2 urte, Castejonan, cross country lasterketa batean. "Emakumezkoen kategoria zegoen, eta horrek gehiago animatu ninduen. Nire lehendabiziko lasterketa izan zen, eta irabazi nuen" gogoratu du Eukenek.

Lasterketan, gehienetan mutilekin batera aritu izan da Eukene, nahiz eta gero kategoria ezberdinetan puntuatu. "Motorean ibiltzeko indartsu egon beharra dago. Nik, sarritan,

suspentsioetan ez dut motorra hondoratzen ere; nire adineko mutilek bai, ordea. Ezberdintasuna handia da" nabarmendu du. Zorionez, emakumezkoen presentzia gora doa motokrosean.

2019an Nafarroako Motokros Selekzioetik deitu zuten Autonomien Arteko Espainiako Motokros Txapelketan aritzeko, La Bañizan (Leon). "Ni motokrosean berria nintzen, baina emakume gutxi geundenez, deitu ninduten. Emakumezkoak eta gizonezkoak guztiak batera aritu ginen. Oilar guztiakin jarri ninduten, onenkin. Ez dakit nola ausartu nintzen ere: 14 urte nituen eta zirkuitu oso zaila zen, sekulako saltoekin, baina atera nintzen" dio. "Ez da atzera egiten dutenetakoa" erantsen du osabak. Halaber, 2019an bi motokros campusetan parte hartu zuen, Katalunian eta Miranda de Ebron. "Oinarria teknika da, eta campusetan asko ikasten da" dio Eukenek.

**Ererikoetatik osatzen**  
Eukenek kirol honen alde txarra ezagutu du ere, aurten bi ereriko izan dituelako. Lehenengoa

Murchanten izan zen. "Erorketa tuntun horietako bat izan zen, baina masailezurrean sekulako kolpea hartu nuen eta beheko hortzak apurtu zitzaizkidan, barrutik. Berreraikuntza egin didate. Lesiotik atera berri, Madrilen, emakumezkoen campus batean, salto nahiko handia egin nuen, erori eta hankako behatz potoloa apurtu nuen. Duela bi hilabete izan zen, eta osatzen nago" azaldu du Eukenek.

Motokrosean edozein akats garesti ordaintzen da. "Kirol gogorra da, agresiboa. Saltoak handiak dira, eta edozein akatsengatik ospitalean bukatu dezakezu. Kirol guztietan bezala, asko entrenatzea ezinbestekoa da. Ererikoengatik beldur pixka bat hartu du Eukenek, baina berriro hasi da, eta konfiantza hartuko du" argi du Fernandok.

"Gutzika motorrarekin feelinga hartu beharra dut. Hori da aurtengo xedea" erantzun dio ilobak.

16 urte dituen, orain 125 zilindroko mailan aritzea dagokio Eukeneri, eta salto oso handia da. "Errespetu handia ematen dit. Agian, egokiena Espainiako Emakumezkoen Motokros Txapelketan probatzea litzateke" dio Eukenek. Iritzi berekoa da osaba.

Gaur egun Olaztiko Valcarce ondoan Sakanako MX Urbasa klubak prestatutako zirkuituan entrenatzen dute biek. Klubeko bazkideak dira. Zirkuitu handia omen da, ederra, nahiko exigentea. "Motorra nire bizitzeko modua da, pasioa. Nire kasuan, dudan maila mantentzearekin konforme nago. Eukene da orain goraka doana. Sekulako ilusioa dut iloba atzetik datorrelako" aitortu du Fernandok.

**ALEJO  
ITURGINTZA**

ISMAEL PEREZ  
San Franzisko kalea, 2  
Olazti  
680 294 842  
fontaneriaalejo@hotmail.com




Iturgintza



Galdaragintza



Gas berogailuak



Energia berriztagarriak



Gasoil depositoak



Komunetako eta sukaldetako berrikuntzak



Komunetako altzariak

Zure edari banatzailea!

**Hijos de Goikoetxea**  
Tel. 948 407 317 - 696 979 279 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

## "Ongi etorri Epiren etxera"

### EPI BAZTARRIKA LETE

#### LA CASA DE EPIREN JABEA

Ziordiko lehen landa turismoko apartamentuak, La casa de Epik, duela hilabete eskas zabaldu zituen bere atea. Hutsik zegoen etxebizitzari beste bizitza bat eman diote

Eneida C. M. / Maider B. G. ZIORDIA

#### La casa de Epi du izena ireki berri duzuen landa turismoko apartamentuak.

Gure aita zena Epifanio zen, eta niri ere izen hori jarri zidaten; beraz, izena hortik dator. Erraza da esaten, xumea eta argia.

#### Nola sortu zitzaizun ideia?

Hau nire etxea zen, bertan bizi nintzen. Ama alboan bizi zen, baina erori eta min hartu zuenez, nirekin bizitzera etorri zen. Nire etxeko behealdean etxebizitza prestatu genuen, moldatuta, eta han gaude. Orduan goiko etxea hutsik geratu zen. Ideia aspaldi nuen buruan bueltaka, eta pandemia etorri zenean etxea landa turismo apartamentua bilakatzea aukera ona zela iruditu zitzaidan. Bide honetan, Olaztiko Aritz Barandik eta Belen Imazek laguntza handia eman digute; euren landetxeak dituzte, eta nondik jo eta zer egin aholkatu digute. Oso eskertuta gaude.

#### Proiektua aurrera eramateko egin beharreko pausoak nolakoak dira?

Lehenik eta behin, baimen eta burokrazia kontuak daude. Gu ez gara zerotik hasi: etxea egina zegoen, eta Nafarroako Turismo Departamentutik test moduko bat erantzutea eskatu ziguten, etxearen ezaugarrien berri izan

eta bete beharreko eskakizunak betetzen dituen ikusteko. Baremazio bat da. Esaterako, sukaldeak 15 metroko azalera badu, puntu bat dauka, eta 10 metrokoa bada, ez du puntuatzen. Halako xehetasun pila bete behar ziren. Horrekin batera, etxearen argazkiak eta planoak eskatu zizkiguten. Hor ikusten da baremazioan esandakoak benetakoak diren.

#### Zailak dira paper kontuak?

Zalantzaren bat egonez gero, Turismo Departamentura jo daiteke lasai asko eta behar duzun laguntza ematen dute. Gauzak ongi eginez gero, nahiko prozedura erraza da. Eta nabarmenezkoa da Ziordiko Udalak ere ez digula inolako arazorik jarri; kontrakoa, eta eskertzekoa da ere. Bestalde, landa turismo apartamentua kudeatzeko orduan, internet erabilpen ezagupen batzuk izatea beharrezkoa da, erreserbak eta halakoak kudeatzeko.

#### Etxea egokitu behar izan duzu?

Apartekorik ez. Oheak, koltxoak, altzariak eta halakoak berritu ditugu. Su itzalguak eta irteeren seinaleztapena jarri ditugu, baina ez dugu sekulako inbertsioa egin. Txikikeriak ziren.

#### Paper kontuetan hasi zinenetik turismo apartamentua zabaldu arte, zenbat denbora pasa da?



Hilabete bat inguru. Behin guztia martxan izanda, garrantzitsuena landa turismo apartamentua turismo plataforma digital garrantzitsuetan egotea da, Booking eta halakoetan, jende gehienak halakoetara jotzen duelako. Hor alta eman, eta bere erakuslehoan sartzten zaituzte, bere portzentajearekin. Baina gure telefonoa edonoren eskura dago eta gurera deitzea da egokiena, zuzenean bezeroaren beharrak jakiteko.

#### Noiz ireki zenuten?

Duela hilabete pasa. Pozik gaude, baina aldi berean urduri, erantzukizuna ere badelako. Gure etxea da, kanpoko jendea dator, eta guk nahi duguna da eurak

gurean eroso egotea, gustura. Lehengo bezeroak, Donostiako 8 neska, etorri zirenean, ez nintzen etxetik mugitu ere egin, badaezpada, zerbait behar bazuten gertu egoteko. Denborarekin ohitzen joango gara (kar, kar...).

#### Zer eskaintzen du Ziordiak?

Lasaitasuna. Orain, udan, giro polita dago. Ume asko ikusten dira, eta umeak dauden tokian alaitasuna dago. Gurea herri txikia da, baina zerbitzu asko ditu. Igerilekuak eta frontoia eskura izan, eta bazkaltzeko edo afaltzeko jatetxea izatea gozamen hutsa da. Eta gero, paseoa Arabaraino joan daiteke, Lezera. Aldapan gora joan nahi dutenek Hirumuga, Pagadi edo Urbasa

dituzte eskura. Onddoen sasoiaren denean, aukera polita da ere. Eta neguan goxo egoteko sutondo polita dugu. Aipatzekoa da gurean txakurrak ongi etorriak direla. **Nola hartu dute landa turismo apartamentua ziordiarrek?**


Ez dut jendearekin asko hitz egin, baina askok harriduraz hartu dute. Landa apartamentua jarri behar nuela esan nuenean, askok ez zidaten sinistu. Nik uste dut herriarendako ona dela. Donostiako neska horiek jatetxean egon ziren bazkaltzen, esaterako.

#### Sakanan turismoan sartzea kostatu zaigu.

Sakanan industria, enpresak eta tailerrak ditugu, baina honekin ez da nahikoa. Enpresa bat ixten den bakoitzean pertsona asko doa langabeziara. Zein irteera dago? Turismoa aukera bat da. Gurean, geroz eta landetxe, apartamentu eta hotel gehiago ari dira zabaltzen. Baztan turismoaz bizi da. Sakanan zergatik ez? Hona jendea ekarriz gero, hobeto guztiendako. Toki pribilegiatua gaude, eta horrek aukera ematen du bide honetan sakontzeko. Nik uste dut denborarekin turismo zerbitzu eta komertzio gehiago zabalduko direla, batak bestea erakartzen duelako. Ildo honetan, esan nahiko nuke landetxeak, hotelak, apartamentu turistikoak... ez gairela elkarren arteko kompetentzia edo etsai. Bakoitzak bere profila du, eta nirea bezero bati egokitzen ez bazaio, ondokoari eskainiko diot. Agian batu beharko ginatke.

#### Landa apartamentua martxan jarzteagatik kontentua zaude?

Bai. Nik nire lana daukat, ez naiz honetatik biziko. Pandemia dela eta, ez dakigu ere jendeak nola erantzungo duen. Ongi badoa, aurrera, eta, bestela, gauden bezala segituko dugu.



## Herri txikien xarma, Ziordia

ESKELA

**Javier Martín Rodríguez**  
(Altsasun hil zen, 2021eko uztailaren 21ean)  
(Zelandi Guraso Elkarteko gure kide Nataliaren aita)



Adiorik ez, bidai on lagun

**Zelandi Herri Eskolako Guraso Elkartea**

OROIGARRIA

**Gorka Echarri Soto**  
V. urteurrena  
(2016ko abuztuaren 17an hil zen)

Urak dakarrena urak daroa,  
lurrak emandakoa lurrean gelditzen da  
eta gu hemen, beti ZU hemen  
Asko maite zaitugu

**Zure familia**



OROIGARRIA

**Benito Senar Lizarraga**  
I. urteurrena

Zuk autziteko maitasune  
egunio ospatzen daulakos,  
asko nehi dakizu

**Zue fameliye**  
Lizarraga 2021eko uztaila



IRAGARKI SAILKATUAK

**OHARRAK**

**Odol emateak Olaztin:**  
Abuztuaren 11n, 17:00etatik 20:30ra. Informazioa [www.adona.es/eus](http://www.adona.es/eus).

**Odol emateak Altsasun:**  
Abuztuaren 17, 18 eta 19an 17:00etatik 20:30ra eta 20 ean, goizeko 9:30tik 13:00etara.

**Odol emateak Etxarri Aranatz:** Irailaren 1ean, 17:00etatik 20:30ra.

**IKASTAROAK**

**Altsasu mugitzen da helduendako ariketa fisiko programa:** Autonomia sustatzeko eta mendekotasunari aurrea

hartzeko programa. Zailtasunak dituzten 70 urteko gorakoentzat pentsatua. Ikastaroa Irailaren 15etik azaroaren 5era arte izango da bi baxandatan: 1. Taldea 10:00etatik -11:15era eta 2. Taldea 11:30tik 12:45era. Izen ematea abuztuaren 30etik irailaren 6ra, Altsasuko udal kiroledegian (948 562 786) edo Josefina Arregi klinikan (948 563 850). Prezioa 15 euro. Altsasuko Udalak Josefina Arregi klinikarekin lankidetzan sustatutako programa eta Nafarroako Gobernuak finantzatua.

**Adinduendako ariketa fisikoko tailerra:** Adindu

hauskorren gainbehera funtzionala eta erorikoak prebenitzeko ariketa fisikoaren profesional batek gidatuta. Etxarriko Osasun Zentroan ostiraletan, 16:00etan. Informazio gehiago [www.sakanamank.eus](http://www.sakanamank.eus) webgunean.

**Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Irurtzunen:** Irailaren 20tik 24ra, goizeko 9:00etatik 14:15era. Kultur etxean. Informazioa eta izen ematea 948 600 412 tfnoan.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

JAIOTZAK

- **Jare Felipe Lakunza**, uztailaren 17an Etxarri Aranatz
- **Adam Iyad Srihyeer Ami**, uztailaren 19an Uhartarakilen
- **Imram El Akkari Mamouni**, uztailaren 25ean Arbizun

EZKONTZAK

- **Ruben Taboada Garcia eta Dafne Huarte Varas**, uztailaren 24an Uhartarakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA

**Igor Rosa Flores**  
I. urteurrena  
(2020ko uztailaren 30ean hil zen, 46 urterekin)

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko

**Etxekoak**



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maidier Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketatzailea:**  
Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

**GK diseinu zerbitzua:**  
Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

**Zuzentzailea:**  
Idoia Artieda Larrazza

**Kolaboratzailea:**  
Munia El Marhoum Iruretagoiena

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.400

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**Oporretara goazi!**  
Hurrengo zenbakia  
Irailaren 3an izanen da



**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Abuztuaren 1etik 29ra

# OPORRETARA GOAZ

**gik**

DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu

f | www.gkomunikazioa.eus